





# Gasteizko Batzokian... (II)

ROMAN PERRIOZABAL AZPITARTE/ GEU ELKARTEKO KIDEA

onako bertso hauek 1909ko apirilaren 28koak dira, San Prudentzio egunez Gasteizko Batzokian, Centro Vasco deiturikoan botatakoak, hain zuzen. Bertsolariak, berriz, Leoncio Galdos eta Leandro Mendia jeltzale gasteiztarak ditugu. Agindu bezala, hona hemen azaroako zenbakian argitaraturiko bertsoen jarraipena.

(7)

Abetxuko jaunari  
 Noa abestutzero  
 Ta bere itzaldiari  
 Txalo egitera.  
 Itzlari ederra ta  
 Abertzale ona,  
 Garbi ezan (sic) digu  
 Egin beardeguna (sic),  
 Euzkadiri ekartzeko  
 Azkatasuna (sic).

(8)

Bilbo-Euzko-Gaztedien  
 Dinaguzia (sic),  
 Nik ere nai det zerbait  
 Zuri exatia (sic),  
 Nai genduke Bizkaira  
 Zugaz bialtzia,  
 Besoestutu gogor bat  
 Amorez betia,  
 Ezanaz (sic) !Gora Bilboko Euzko  
 Gaztedia!

(9)

Biotzian daukat alaitazun (sic)  
 Aundia;  
 Ikusirik gaurr (sic) eman dagon  
 Jendia.  
 Gure anai euzkotarrak  
 Zuen etortzia  
 Esan2 da arabarren zat  
 Pozez betetzia,  
 Nai genduke alkarr (sic) laisterr (sic)  
 Berriz ikustia.

(10)

Zelan ez dozu artuko  
 Alaitasuna,  
 Ikusirik emengo  
 Anaitasuna;  
 Andra-neskatilletan  
 Dago edertasuna  
 Gizon-mutilletan  
 Abertzaletasuna  
 Jaunak danori eman deigula  
 Osasuna.

(11)

Lenitz anaia pozik dago  
 Urtetzeko,  
 Ta geu ere bai bera  
 Ementxe ikuzteko (sic)  
 Ulzte (sic) genduban gaugaz  
 Euki bazkaltzeko,  
 Baña gogorik ez dauka  
 Azkatzeko (sic) ...  
 Jaunak atera deilla  
 Geiago ez zartzeko (sic).

(12)

Batzokionetako (sic) batzarr (sic)  
 Edo juntia,  
 Zuek ere merezi dozu  
 Txalotzia.  
 Batzoki ederra ta  
 Ikusigarria,  
 Auxe da gauzak ondo  
 Egitia,  
 Argatik zeugaz pozik dago  
 Jentia.

(13)

Zoñulariak (sic) gertu dagoz  
 Zoñu (sic) jotzeko,  
 Bai ta abertzaliak ere  
 Entzuteko,  
 Ordua degu bada  
 Guk amaitutzeko  
 Zoñu (sic) jotzale onak  
 Gertatu azteko (sic)  
 Egin lenengo txurrut bat  
 Gero ondo jotzeko.

(14)

Itz neurtu onegaz noa  
 Amaitutzero,  
 Eta bizkaitareri  
 Agurr (sic) egitera  
 Bizkai-Buru-Batzarra  
 Etorri da onera  
 Geugaz egun ederra  
 igarotera,  
 Zuen etorriaz pozez  
 Bete gera.

(15)

Armentiatarr (sic) Purdentzi  
 Deun zaindaria  
 Zugaz ipintzen degu  
 Geure aberria;  
 Zain zazu arabatarr (sic)  
 Euzko gaztedia,  
 Zain zazu jai0 ziñaden  
 Erria,  
 Zain zazu !arren! Gazteizko  
 Batzokia.

Geu Gasteiz berriz, kolore guztiak

## Naturaren isladak

Buztan luzeak (Aegithalos caudatus)





GEU GASTEIZ, Gasteizko  
Euskaldunen hilabetekaria

ERREDAKZIOA:  
Pedro Asua, 2 - 3.a  
Telefonoa eta Faxa: 22 21 53

ZUZENDARIA:  
Estilxu Breñas Glez. de Zarale.

ERREDAKZIOBURUA:  
Asier Dz. de Karkamo.

ERREDAKZIOA:  
Leire Lopez de Aberasturi, Ismael Diaz  
de Mendibil, Txabi Arnal-Gil, Raul  
Saez de Buruaga, Itziar Uriarte.

ARGAZKIAK:  
Edorta Sanz.

MAKETA:  
Galzagain Argitarapenak  
Telefonoa: 970 40 18 46

INFOGRAFIA:  
Alex Badillo.

KOMIKIA:  
Iñigo Sarasola

NATURAREN ISLADAK:  
Jose Antonio Gainzarain.

KOLABORATZAILEAK:  
Jon Maia, Abel Enbeita, Imanel  
Barrutia.

PUBLIZITATEA:  
Karlos Fdez. de Beloño.

BANAKETA ARDURADUNA:  
Txipi Ormaetxea.

INDRIMATEGIA:  
Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

ALE KOPURUA:  
2.500

LG: VI-582/92  
ISSN: 1133-0988  
Franko Itundua 48/27 zenb.

ALDIZKARI HAU PAPER  
EKOLOGIKOZ EGINA DAGO

Geu Gasteiz hilabetekariak  
ez du bere gain hartzen  
bertan adierazilakoen erantzunkizunik.



## aurkibidea

19  
ORR.

ELKARRIZKETA

Felix Ormazabal,  
Arabako Diputatu Nagusi.

### KIROLAK

Eneko Atxa,  
baseritik irten  
eta belauntzian  
munduari bira  
eman zion  
laudiarra.



22  
ORR.

### iritziak

28 Mikel Garmendia

*Durangorako*

28 Jon Maia

*Manipulazio baten historia.*

30 Abel Enbeita

*Eta orain?*

### laburrak

6 Postariak ekarria

*Gazte izatea eta*

*Gasteizen bizi nahi izatea.*

7 Geurekin Mendira.

*Andarto, Degurixa.*

### elkarrizketak

19 Felix Ormazabal.

*Arabako Diputatu Nagusi.*

### kirolak

22 Erreportaia

*Elkanoren azken bidaia.*

24 Botepronon:

*Vanessa Almeida.*

### kultura

8 Literatura

*Xabier Izaga presoaren linburua.*

12 Musika

*Bandar-Log.*

12 Kritikak

*Benito Lertxundi, Inpresentablek,  
Ana Belen...*

25 Agenda

*Abenduko kultur ekitaldien zerrenda.*

### erreportaia

9 Hizkuntza

*Euskararen garaia heldu da.  
26an denok Mendizorrotzara.*

### ohikoak

4 Santa Barbara azoka

*Euskararen termometroa*

5 Kalea mintzo

32 Komikia





Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta  
Euskara Sailak diruz lagunduriko aldizkaria

CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA





JALGI

HELBIDEA: <http://www.jalgi.com>

SORTZAILEA: Euskalgintza.

Jalgin euskararen inguruko Jainbat elkartek egiten dute topo. Euskaldunon Egunkaria, Kontseilua, Elhuyar, Ikastolen Elkartea... Erosi ere egin dezakezu Jalgiren web orrialdean. Irudian duzuen aurkibidea da. Hortik abiatuta edozein lekura joan zaitezke. Guk, hilabete honetan, bi gomendatuko ditugu: Durangoko Azoka eta Kontseilua.

Baina lasai, besteen berri izango baituzue aurrerantzean. Merez du eta!

## santa barbarako azoka

Agurrak, saldu edo erosi nahi duzuna... idatzi postazi: pedro asua, 2. 3.a faxa. 22 21 53

### SALTZEN DUT

Antzinako txanponen bilduma saltzen dut, mende honetakoak eta nazio aritzeoak ere badauzkat.

945 14 54 90

Lanpara bat dut salgai sarre-ran ipintzen den kristalxo asko duen horietako dotore bat. Oso ona da.

945 22 73 03 Maite

Telefono mugikorra daukat salgai. Ascom Elisto (Airtel). 19.000 pta. balio du eta nik 15.000 ptan. salduko dizut

945 22 73 03 Jabi

Pedro Sainz margolariaren oleo bat daukat salgai. Arabako Lasarte herria da. 108x87. Salneurria: 60.000.

945 22 73 03

Trono itxurako aulki handi bat daukat salgai, oso aproposa adineko jendearentzat. Erosoa. Salneurria: 12.000.

945 22 73 03

### DEITZEN DIZUT

Ohiko osasun sistemam asetzen ez bazaituzte, zator Sumendi osasunaren autogestioaren aldeko elkartera

945 22 65 03

Ez hago bakarrik! Hator Gatasunara. Informazioa, hitzaldiak eta eztabaidak, psikologi, sexologi eta lege aholkularitza... Bilerak asteazkenero.

945 25 77 66

Gasteizko Esperanto Elkarte. Hizkuntza txikiak maite ditugulako, esperantoz mintzatzen gara.

Zapatari kalea, 29

### ALOKATZEN DUT

Aktiboan dagoen harategia alokatzen da. Esparru zabala da eta ondo prestatuta dago.

945 24 08 65 Ana

### EMATEN DIZUT

Altuberen Erderismos liburua dut emateko, bi ale ditut eta. Horrekin konforme ez bazagoz, patxaran kopatxo bat ere eskeinitu dizut.

945 13 27 58 Jose Luis

Geu Gasteiz aldizkaria.

Pedro Asua kalea, 2. 3.a

faxa: 22 21 53

geugaste@jrg.com

### PREMIAZKO TELEFONOAK (BETI 945 AURRETIK)

S.O.S. DEIAK:	112	AUTOBUS GELTOKIA:	25 84 00
UDALTAINGOA:	092	RENFE:	23 02 02
INFORMAZIOA:	010	AIREPORTUA:	16 35 91
SUHILTAILEAK:	16 11 11	ERREPIDEETAKO INFORMAZIOA:	28 20 00
GURUTZE GORRIA:	22 22 22	HIRI-BABESA:	16 11 61
D.Y.A.:	28 10 20	UDALETXEA:	16 11 00
ERIETXEETAKO URGENTZIAK:	24 44 44	FORU ALDUNDIA:	18 18 18

## ... eta kitto! / Asier Dz. de Karkamo

Hala zioen bai, Euskal Herrian Euskaraz talde euskaltzaleak bere historia oparoan erabili izandako leloetako batek. Aspaldikoa da, baina gaurkotasunik galdu ez duena. Irudiak, ostera, beste kanpaina bat ekartzen digu gogora, azaroan EHEk Euskal Herri osoan burutu-riko Ezabaketa Eguna, alegia.

Hamarnaka seinalek beren ohiko lekuak utzi zituzten, norbaitek erdara utzean fabrikatzeko okurrentzia azkarra izan baitzuen. Ekintza harekin euskaldunon eskubideak aldarrikatu eta bide-seinale publiko guztiak euskaraz ere inprimatuak izateko exijentzia egin nahi izan zuen talde euskaltzaleak.

Zein bide erabili bakoitzak erabaki behar du eta gu ez gara inor hau ondo dago eta hau gaizki esateko, era berean, guk gurea hautatzen dugunean berau ere errespetatu izatea nahi baitugu.

EHEren ekintza ikusgarria izan zen. Udala zaintzen zuten udaltzainen aurpegiari begiratu besterik ez zegoen hori baieztatuzko. Ikusgarria bai, baina eraginkorra izango ote? Hori jada ez dago EHEkoen esku, gure mandatar politikoen ardura baino ez da. Birtartean, euskaldunon eskubideak zapaltzen diren heinean, euskararen alde edozein armarekin burukatuzeko legitimidedea behintzat ez zaigu falta.



Bada garaia Udaleko arduradunek euskaldunon aldarrikapenei behingoz kasu egiteko. Legeak berak agintzen duen bezala euskaldunok eta ez direnek eskubide berak ditugu.

... eta kitto!

fotonotizia





# kalea mintzo

TESTUAK: NAGORE ZEBERIO ARGAZKIAK: ANIA IBISATE



AMAIA FERNANDEZ  
IRAGARKITAN

1.- Ez da justua. Hau umei gezurrak sartzeko baliogarria da eta ez zait egokia iruditzen.

2.- Hau zuzentzeko hobereena ahalik eta aldizkari gutxien bidaltea litzateke eta norberak erabakitzea erosi nahi duen ala ez.

- 1.- Iragarkien inbasioa bidezkoa dela deritzozu? Nola ikusten duzu zuk hau guztia?
- 2.- Iragarkiok gastuen handiagotzearen errudun nagusiak izan daitezkeela uste al duzu?

## iragarkitan blai

Jadanik gabonak gainean ditugu eta data hauetan ohiko moduan denok kalera irteten gara Olentzero egunerako gure erosketak burutu nahian. Horrela izanik, opari, janari zein apaingarrietan diru morderoa xahutzen dugu. Konturatzeko, bizi dugun gizarte honek, pixkanaka-pixkanaka *gabon izpiritua* galduz joan da, gabonak, salerosketa burugabe bihurtu direlarik. Hori dela eta, enpresa handiek, data hauetaz baliaturik, euren iragarki kanpaina itzelak kaleratu dituzte guztioi burua zurituz.



ANA FERNANDEZ  
IRAGARKITAN

1.- Okerrena umeentzat da, txikitatik galtzen baitute *gabon izpiritua* eta honek kontsumismo batera bultzatzen gaitu guztiok.

2.- Normala da Gabonetan pixka bat gehiago gastatzea, baina gehiegikeria da gaur egun zarrasteltzen dena.



JOSE MANUEL CALLEJA  
MEDIKUA

1.- Gabon inguruan negozia da gertatzen dena. Saltzaileentzat diru iturri ederra da.

2.- Gastuen igoera normala da. Egia da iragarkiek hortan zerikusia dutela, baina bestela ere Gabonetan gehiago gastatuko zen.



ZURIÑE GAYARRE  
BEGIRALEA

1.- Gabonetan guztiok daukagu erosteko asmoa eta normala da iragarki gehiago egotea.

2.- Hainbeste tentazio edukitzen dugu iragarkiekin... Normala da azken finean gastua igotzea. Ez diot erremedio errezik ikusten.



JESUS RUIZ DE LOIZAGA  
JUBILATUA

1.- Iragarki kopurua asko handitzen dela badakigu, baina gure esku dago ez erostea. Engainatu egiten gaituzte.

2.- Erru guztia ezin zaie iragarkiei bota baina zerikusi handia dagoela baieztatuko nuke.



DANIEL CASTILLO  
IRAGARKITAN

1.- Ez da justua etxera irtiten zaizkigun iragarki guztien kontua. Paper morderoa gastatzen da botatzeko.

2.- Azken orduan gu gara erabakitzeko askatasuna dugunok eta erosten duguna guk horrela nahi dugulako erosi ohi dugu.



## GASTEIZKO BATZOKIAK ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDAÑO

ERDIALDE

LAKUA

ZARAMAGA



## postariak ekarrita

iritzi guztietara zabalik gaude  
pedro asua, 2. 3.a faxa. 22 21 53

### Gazte izatea eta Gasteizen bizi nahi izatea

Lege idatziren batek eta logika oinarritzkoenak diote guztiok, herri honetako gazteok barne, badugula etxebizitza duin bat izateko eskubidea. Baina errealitateak eta legeak, orokorrean logikarik ez duena jarraitzen giza-  
eskubidei buruz ari garenean, ez doaz eskutik bizirik irautea helburu dugun gizarte honetan. Errealitate gordinak etorkizunik gabeko milaka gazte protagonista dituen istorio lazgarria kontatzen digu. Gazteak dira, eta ez dute sumatzen arrazoizko epe batean euren independentzia pertsonala lortzeko biderik. Ez da ahuntzaren gaueko eztopia, are gehiago Gasteizen.

Etxebizitza lortzeko egoera hiri honetan, eta orokorrean Araba osoan, bereziki korapilatsua da. Azken urtetan alokairu eta presioen igoerak egiazkotasunaren mugak ukitzen ditu, baina erreala da zeharo. hain da erreala, ezen, orokorrean, herri honetako gazteontzat norberaren bizitza proiektua gauzatzea ia ezinezkoa baita.

### Lehean datua: Gazte langabezia Euskal Herrian %50 ingurukoa da.

Lehen ondorioa: Gutxi gora behera gazteen erdiak ez ditu benetako aukerarik ez baliabide ekonomiko nahikorik bizitza eta etxebizitza propioei aurre egiteko, are gutxiago etxebizitza erosten ari bagara.

Bigarren datua: Prekarietate egoeran eta Aldi Bate-rako Enpresek egindako kontratazioek gora egiten dute behin eta berriro, hots, lanaldi eta soldata egoera onartezinoko baldintzetan.

Bigarren ondorioa: Lana duten gazteen %85aren lan baldintzek ahalbideratzen duten bermekin norbe-

raren independentzia lortzea helburu bezala planteatzea ere utopia bat da.

Hirugarren datua: Bataz-beste pisu baten prezioa Gasteizen 25 milioikoa da (eta behera jo egin dugu), eta alokairua 80.000 pezetakoa hilean.

Hirugarren ondorioa: Lan duina eta ordainketa bidezkoa duten zorioneko gazteen apurrak, merkaturatuta aztertu ondoren, bi aukera besterik ez ditu: alde batetik, bere bizitza hipotekatzea etxebizitza bat erosteko. Bestetik, alokairua, horrek dakarren guztiarekin.

Ikusoei latz horrek erantzuleak ditu: izen-abizenak, enpresak, erakundeak, interes ekonomikoak dituzten alderdi politikoak... Gauza oso sinplea da; ez da zoriarren ondorio, espekulazioa helburu duen politika baten ondorio baiziki. Euren egileei etekin itzelak dakarkien politika da, Gasteizko Udalaren aldetik guztiz lotsagabea. Lur sail batek (adibidez Salburuak) 5 balio ditu, nik 20gaitik erosten ditudu, etxegileari 70engaitik, eta bere azken prezioa ondo zaindurik dauden bi glitzurren parekoa izango da, dagokion inbentarioari ordaindu beharrekoa. Hori izan da, hain zuzen ere, Gasteizko Udalak azken urteetan egindako oinarritzko jarduerak, eta hori lur eremuekin espekulazioa da.

Tonu griseko argazki horren aurrean Gasteizko eta Euskal Herriko gazteria ez da geldi geratuko. ez gaude prest gure ilusioak txikituzera datorren zapalgailu kapitalista besterik gabe itxoteko. ez dugu pazientziarik gazteon eskubide diren etxebizitza eta lan duinak ukatzen dizkiguten eguneroko nazkagarriekiko. Osti txarra da daukagun azkena. Osti txarra, odol beroa eta hortz estutuak dagokiguna lortu bitartean. Gazteontzat apos-

tu egiteko garaia iritsi da, arriskuak hartzeko. gure etorkizunaren jabe izateko pausu sendoak emateko. Euren aginpidea baztertzeko; gurea edo inorena ez den itsasuntzi baten gidaritzara, alegia.

Jarrai, gazte erakunde lez, gure herriko eta beste herrietako milaka gazte pairatu behar duten egoerarekiko sentibera da. Erakunde iraultzaile bezala, ez du geldirik egoteko asmoa, eta gazteriari dagokien eskubideen aldeko borrokan bere konprometua berezten du.

Ildo horretan kokatu behar dugu iragan urriaren 15ean eginiko ekintza. Gazte talde bateak, sinbolikoki, Etxebizitza eta Hiri berriztapenerako Udala Agentzia bere etxebizitza izango zela erabaki zuen, Gasteizko Udalak etxebizitzaren arazoentzako irtenbide erreala martxan jartzen dituen bitartean. Borroka fronte baten lehen urratsa da soilik, herri honetako gazteei inoiz galdu behar izan ez zuten eskubide baten benetako egikaritzara lortzea ahalbideratuko duen frontea: Etxebizitza eta etorkizuna independentzian izateko eskubidea.

Hori dela eta Jarraik Euskal Herriko eta bereziki Gasteizko gazte guztiak gonbidatzen ditu helburu komun hori lortzeko ahalegina batzera. Eta kolpez kolpe etxebizitzaren kudeaketa eredu hori bertan behera botatzera. Eta lan duina, baliabide ekonomiko eta independentzia pertsonala ukatzen dizkigun egitura ekonomiko eta sozial horren zutabeak kolokan jartzera.

Behin batean ondokoa irakurri nuen gure hiriko Gaztetxean: "Etxebizitza luxua denez okupazioa eskubide bihurtzen da", argi eta garbi.

EGOITZ LOPEZ DE LACALLE  
GASTEIZKO JARRAIKO KIDE

## "...seeing in the rain" ("European ikusten")



zeren eta Multilens\* ukipen-lenteen packa erostean, zira alderantzgarri hau oparituko baituzugu.

**14.900** pta. besterik ez



ZERBITZU  
OPTIKOETAN  
**1a**

**MENDIAOPTIKA**  
DESDE 1856 AZ GERO  
**MULTIOPTICAS**

Andre Maria Plaza  
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)  
**GASTEIZ**

Larunbat arratsalde zabalik: 5.00 - 8.30



\*Hilero aldatzeko diren 6 Multilens lentixetako 2 kaxa eta 360 ml. soluzio bakarreko 2 pote barne. Eskaintza honek izakinak ahiu arte balio du. Bezeroaren arretarako telefonoa: 900 34 35 36. www.multipticas.com



## Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest  
• 36 errezeta ezberdin  
ERAMAN ETA JAN  
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36  
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ





## Deguria: Araba, Gipuzkoa... zoragarria

**E**uskara batuan Deguria. Hango hizkeran Degurixa. Arabako mugatik oso gertu kokatzen den inguru zabal karstikoa. Andarto da Deguria edo Degurixako tontor garaiena, itsasoko marrantik 1.076 metro altxatzen baita. Horri ekingo diogu hile honetan *Geurekin mendirako* lagunok.

Araozetik txango ertaina da Andartorainokoa, hiru ordutan joana eta etorria egiten direlarik. Araozetik *Aizkorbe Goikoa* baserriraino porlanezko bidea da. Segidan hegoaldera jo behar da eta Andartoren ezkerrean dagoen lepo zabalera (Ezate, 960) daraman pistari heldu. Lepo honetatik gandorretik iparrerantz aurrera jarraitzea besterik ez dugu falta gailurrera heltzeko.

Txango erraza eta ederra abendukoa. Litekeena da Degurixa inguratzen duten mendiak elurrez jantzita aurkitzea. Orkatzategi, Aizkorri, Aratz, Gorbeia, Udaltx eta Anbotoz goza daiteke, besteak beste, Andartoko gainetik. Ez ahaztu bada argazki kamera.

Datozen hilabeteotan burutuko ditugun ibilaldiak dagoeneko hautatu ditugu. Hona hemen zerrenda luzea: Untzillatx (urtarrilaren 17an), Kruzeta-Repico (otsailaren 21ean), Batxikabo-La Mota (martxoaren 14an), Irumugarrieta (apirilaren 18an), Mugarriluze-Aumategi (maiatzaren 16an) eta Pagoeta (ekainaren 13an). Horietako guztietako zenbait autobusez egingo dira, *Hara bada, Araba da* kanpainako autobusean.



Izugarria da Andartoko ikuspegia: Orkatzategi, Aloña, Aizkorri, Aratz, Aumategi, Gorbeia, Kurutzeberri, Udaltx eta Anbotu.

MERKURIO-KADMIOMAN %0a  
 CEGASA PILAK  
 INDARTSUENAK  
 ETA  
 EKOLOGISTENAK

**CEGASA**  
INTERNACIONAL  
ALCALINA

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.  
 Artapadura, 11 - Apdo. 355  
 Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

# GEU rekin MEN DIRA

**abendua**

**Araotz  
Deguria  
Andarto**  
(1.0Z/Gm)

**abenduaren 13an**

goizeko 9:30etan Txapela tabernan

**Autobusez joango gara,  
Vital Kutzaren Hara bada,  
Araba da kanpainako auto-  
busean hain zuzen ere.**

**GEU elkartea eta  
Geu Gasteiz aldizkariaren  
ekimena**





# Xabier Izaga, kartzelako olerkiak plazara

Xabier Izaga preso gasteztarrak "Bart irakurtzeko gaur izkiriatura" izenburuko poema liburua plazaratu du Susa argitaletxearekin. Liburu honetan Gasteizko Errota auzoko idazleak urtetan kartzelaz kartzela, ziegaz ziega, idatziriko poemak agertzen dira, bederatzi atal-gaietan banaturik.

Egun, Xabier "Nene" idazlea gatibu dago, Cacereseko espetxean. Sakabanaketa onduz hainbat eta hainbat kartzela ezagutu ditu. Datorren urtean hementzortzi urte beteko dira gitzalpean bizitzera kondenatu zutenetik. Liburuaren aurkezpenaren berak ez zuen egoterik izan, halere, zigorraren hiru laurdenak aspaldidanik beteta dituenek, legeak berak dionaren arabera, kalean egon behar luke.

Liburua olerki errezital baten bitartez plazaratu zen Parral tabernan. Gorka Arrese, Josu Goikoetxea, Kirmen Uribe eta Igor Elortza aritu ziren Xabierren gogoeak eta pentsamenduak poemetan islatu-rik jendeari hurbilarazten, Andoni Tolosa "Morau"ren soinuaren laguntzarekin. Eszenatokian "Zirika" marrazkilariaren lanak ikusgai zirelarik, errezitzaileek liburuan barrena berotasunik beteriko ibilbidea egin zuten.

Errotako idazleak idatzitako lehen liburu hau Carabanchel, Puerto de Santa Maria eta Herrera de la Manchako kartzeletan ondutakoa da, eta egun gatibu dagoen Caceres-lean burutua... hain zuzen ere munduaren eta denboraren neurriak trakestuta dauden lekuetan. Lanaren izenburuak berak "Bart irakurtzeko gaur izkiriatura" kolokan jartzen du

denbora, barruko eta kanpoko egunak agerian utziz.

Xabierrek gatibu dagoenetik ia-ia hasieratik idazteari ekin dio, askatasunaren bila edo. Bertsoz bertso, poemaz poema, Puerto de Santa Mariako lau hormetan Joseba Sarrionandia lagunkide izan zuen. Bertan elkaturiko presoek literaturari buruzko eskola handia egin zuten. Gerora ere Sarrionandiak bere liburuetakotasunaren zenbat "keinu" egin dizkio Izagari, urte guztiotan idatzitako olerkiak kaleratzen behingoz ausar zedin.

## Bidaia poemetan zehar

Liburuek milaka pentsamenduak egin ahal izateko bideak irekitzen dizkiote irakurleari. Poesiaren mundua askoz zabala da. Olerki bakoitzak ateak zabaltzen ditu gogoetarako, pentsamenduak, irudiak... egiteko.

Xabier Izaga idazle gasteztarraren poema liburuan gai askotako ibilbidea egin daiteke. Norberak aukera izango du bidaia osoa edota olerki olerki nabigatzeko.

Hala eta guztiz ere, "Zirika" marrazkilari gazteztarrak egindako liburuaren azala ikusi ahal, denok joango gara Caceresera, idazlearengana. Denok agertuko gara prest soka horiek askatzeko, Xabier ikusteko; eta berde, hori eta urdin koloreetara erakartzeko.

Barruan sarturik, orriak pasatzerakoan sentimendu hori agertuz eta agertuz joango da. Tartean, olerki olerki gai askotako munduan sartzeko ahalbidea eskeiniko digu idazleak.

## beste batzuk

### JAVIER GONZALEZ Frigorificos en Alaska

Itzulpena Juan Garzia Garmendiarena. Debate, 1998. 183 orrialde.



Kontakizunen liburu bikain honek Raymond Carver-en kutsu garratza, Antón Chéjov-en zehaztasuna eta Clarín-en adimena biltzen ditu. Itxuraz inolako zentzurik ez duen mundu batean beren nortasunaren bila dabilen pertsonaia eguneroko istorioak dira. Eguneroko bizitza, itxurakeria gris eta monotonoen atzean dagoena, erakutsi nahi du. Irudimena da "erreal" dena, ezagutzen

ez duguna -egunerokotasunean eragina eta zerikusia du horrek- zehazteko liburu honek erabiltzen duen tresna. Kontakizunak biziak dira, hala-ke kezka bat sortzen digute, gauzei beren kasa hitz egiten utziz kontakizun izugarriak osatuko dira. Literatur maila handiko egilea ezagutzeko aukera emango dizu.

### ERNEST HEMINGWAY Francis Macomber eta beste...

Itzulpena Javi Cillerorena Igela. 1998. 110 orrialde.



Liburu honetako bost narrazioetatik hiru Hemingwayren *Men Without Women* liburutik hartuak dira. Irakurleak hemen aurkituko du Hiltzaileak narrazio os-petsua, Iparramerikako nobela beltzaren iturria omen dena zenbaiten iritzi-z, Ava Gardner eta Burt Lancaster izar nagusi zituena film zoragarri bihurtu zena. Hori balitzateke aski meritu omenaldi gisako liburu honetara biltzeko. Horrez gain, Francis Macomberren bizitza labur zorion-

tsua ere hona bildu dugu, zalantzarik gabe Hemingwayren narrazio laburretan ederretakoa baita.

Bai horietan, bai gainerakoetan beti aurkituko ditugu muga-mugako ego-eretan dauden pertsonaia, bizitzari ahal duten bezala aurre egin behar diotenak. Eta liburu osoan zehar Hemingwayren estilo soil, bortitiz, gupidagabea.

Liburu hauek  
AXULAR liburutegian  
daude salgai.  
ARKA PLAZA, 11.

**GORETTI**

**ILEAPAINDEGIA**

Hedegile (KORRE), 14 San Migeleko Pasabidea  
Tfno: 12 08 88

01001 - GASTEIZ


**AMILAMIA**

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17  
tfnoa: 27 40 09  
GASTEIZ

**J A T E T X E A**



Aiztogile (KUTXI), 26 tfnoa: 28 81 47  
GASTEIZ



- ABEGI KULTUR ELKARTEA
- AEK
- ANTZERKI TALDE AMATEURREN BILTZARRA
- ARABAKO EUSKALTZALEEN ELKARGUNEA
- ARGIA
- ARRANO BELTZA EUSKAL TOKIA
- ARTEZ
- AURTEN BAI FUNDAZIOA
- BAGARE EUSKAL TOKIA
- BIGE
- EGAN
- EHE
- EIZIE
- EKB
- ELHUYAR
- EUKARLANEAN-ZABALTZEN
- EMUN
- EREIN
- EUSENOR
- EUSKAL EDITOREEN ELKARTEA
- EUSKAL HERRIKO BERTSOZALEEN ELKARTEA
- EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA
- EUSKAL KONFEDERAZIOA
- EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
- EUSKALAN
- EUSKALDUNON EGUNKARIA
- EUSKALTZAINDIA
- EUSKARAZ BIZITZEKO HITZARMENA
- EUSKO IKASIKUNTZA
- EUSKO IKASTOLA BATZA
- GAIK
- GEREDIAGA
- HIK HASI
- IKA
- IKASTOLEN ELKARTEA
- IKUSKIN
- ILAZKI
- JAKIN
- KARMEL
- KIL-KILU
- LABAYRU IKASTEGIA
- MAIZPIDE
- MENDEBALDE
- OINARRIAK
- ORIO PRODUKZIOAK
- SORTZEN
- TINKO
- TOPAGUNEA (I)
- TIARRITALE
- UDAL EUSKALTEGIETAKO LANGILEAK
- UEMA
- UEU
- URRATS
- UZEI



# Euskararen garaia HELDU DA

XXI. mendeko atariaren aurrean, euskarak guztion laguntza behar du behin-betikoz gure gizartean txerta dadin. Duela hogeitau urte baino egoera hobean egon arren, oraindik ere aurrerapauso nabarmenak eman beharra dago. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua horren alde lan egiteko jaio zen; urrian abian jarritako 'Bai Euskarari' kanpainarekin, gizartearen sektore guztien inplikazioa bilatu nahi da.

Euskal Herriko bazter guztietan euskararen alde lan egin ohi duten erakundeen bilgunea da *Kontseilua*. Zenbakietan, 5.000 langiletik gora aritzen da erakundeotan eta 100.000 bazkide inguru dituzte.

**G**izartearen esparru guztietan euskara, gainontzeko hizkuntza guztiak bezala, elkarrekin komunikatzeko oso tresna baliogarria denez, hizkuntzarekiko konpromezua hartzea guztiz beharrezkotzat jotzen dute Kontseilua-ren erakundeek. Hala ere, helburu hau bete dadin, ikasi ezezik zer edo zer gehiago egin behar dela azpimarratzen du Kontseilua-k.

Kanpaina honen Arabako koordinatzailea den Josu Olanoren ustetan, orain arte euskararen aldeko kolektiboek inolako loturarik gabe lan egin dugu ideia honen inguruan. Gaur, berriz, pauso kualitatibo bat eman behar dugu. Egitasmo guztiok batu behar dugu denon hel-

burua den euskara suspertu eta normalizatzearen alde. Horretarako Kontseilutik kanpo dauden eragile sozialak gureganatu behar ditugu, guztion artean plan bat diseinatuzko.

## Gizarte-eragileen garrantzia

Gure bizitza soziala euskaldunagoa izan dadin, euskara, hizkuntza, zer den argi eduki behar da, askotan euskararekiko egin den politizazioak ez baitu honetan gehiegi lagundu, eta jende askok <<mamu>> bailitzan ikusi du gure hizkuntza. Egoera hau gainditzeko eragile sozialen inplikazioa ezinbestekotzat ikusten du Kontseiluak. Josu Olanoren

**MARRAZKIAK  
KOADROAK  
MOLDURAK  
LAMINAK**

**zurbeltz**

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 13 27 20

**UDABERRIA**  
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 • Tfnoa: 24 49 65  
Abendañu kalea 48 • Tfnoa: 22 34 33

**GASTEIZ**



**ARTEPAN**

Artisau  
Okindegia  
eta Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2  
Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37  
01005 GASTEIZ



ren hitzetan, orain arte euskararen alde publikoki agertu ez direnen partehartzea oso garrantzitsua da. Alaves futbol taldea, Baskonia saskibalo taldea, Vital Kutxa, El Correo, Canal Gasteiz, supermerkatuak, komertzio txikiak...; edonork egin dezake zerbait euskararen alde, zehaztea baino ez da egin behar helburu hau egia bihurtu dadin.

Honetan datza, beraz, Kontseilua gauzatzen ari den lana; hots, gizartearen esparru desberdinen eragileekin harremanetan jartzea, euskararekiko konpromezua har dezaten.

### Prozesua

Diseinatu prozesua epe luzeari begira planteatzen da. Horrengatik Kontseilua-k urrian hasi eta hilabete honetan bukatuko den kanpaina hau prozesuaren lehenengo fase moduan ulertu behar da. Oso lan handia garatzen ari da Euskal Herri mailan. Kontseilua, urritik hona, herrialdez herrialde, herririk herri, gizartearen eragileen lehenengo konpromezuak jasotzen ari da. Datorren urtetik aurrera konpromezu horiek plan estrategiko batean sartuko lirakeke, euskararen normalizazioa helburua izaki.

Eragile sozial ugari galdetzen diote Kontseilua-ri zein motatako hitzarmena eskatzen zaien, baina hau momentuz ez dugu zehaztu eta ez dugu zehaztuko kanpainaren lehenengo fase hau igaro arte. Borondate desberdinak daudenean, indar guztiak batu nahi direnean, kontuan hartu behar ditugu errealitate horiek guztiak; aztertu behar dira zeintzuk diren gutxienezko pausoak, azpimarratzen du Josuk.

Gainera kasu askotan -Kontseilua-k xede duena ez da bat etorriko gizarte-eragileek proposatuko dutenarekin, eztabaidak sortuko dira eta horrek, nolabait, denbora eskatzen du.



Orain arte jasotako erantzuna oso aldekoa begiesten dute Kontseilu-koek, gutxi batzuek baizik ez baitute gaizki hartzen euskararekiko konpromezuari batera heldzea. Ezta Araban ere, gure herrialdean oso jende gutxi dago euskararen kontra; batzuk inposaketaren aurka egon daitezke, baina ez euskararen kontra. Oso garrantzitsua da hau desberdintzea. Neurri bateraino euskara ere Arabako ondarea dela ikusten dute, eta hau horrela izanik, babestu eta normalizatu behar den asmoa gero eta zabalagoa da, azaldu zuen Josu Olanok Araban gaur arte egingadako lana baloratzeko orduan.

### Kontseilua-ren indarra

Kontseilua-n aritzen diren langile adituek, alde batetik, eta bere baitan ordezkatuta dauden erakunde guztiak, bestaldetik, prozesu honen garapena bermatzen

diote euskarari. Profesionaltasuna eta erakunde hauen hedapena euskal gizartearen, elkarlotuta, dudarik gabe ezin bermatzaile hobeak izan daitezke.

Hala ere, Kontseilua-k dena kontrolatuko du. Horretarako jaiotako da. Kontseilua-k izan behar du bermatzailea, ez erakundeek; Kontseilua-k eska baitiezaike erakundeei euskararen alde zozter gehiago egitea. Kontseilua-k berak proposatuko ditu pauso batzuk gizarte mailan, eta bete direnentz aztertuko du. Bete ezean, beste era batez eragin beharko du, adierazten zuen Arabako koordinatzaileak.

### Orain arte egingadako

Ekimen erraldoi honek aurrera egin ahal izateko, jende dezente parte hartu du antolatu diren lan-taldeetan. Gasteizen hainbat auzo-elkartek begi onez ikusi du kanpaina eta daturik izan ez arren, auzune bakoitzean ekitaldi desberdinak egingo dira. Propaganda mailan, holako kanpaina batek gizarteratzeko behar duena, hau da kartelak, irratiko publizitate-ziriak, egunkarietako iragarriak hasiko gara ikusten, entzuten edonon. Oso lan polita egin da, guztiok egin dena eta egiten ari dena ezagutzeko parada dugu-eta.

Lan mundua ere ez da atzean geratzen. Euskarak era guztietako ahaleginak behar ditu, ekonomikoa, nola ez, oso garrantzitsua delarik. Kontseilua-k egitasmo txikia eta, aldi berean, hunkigarria eskatzen dio euskal langileriarri, zeinaren bidez lan-ordua baten lansaria euskarari emango dion langile bakoitzak. Badakizu, baldin eta oraindik zure lan-orduetako bat euskarari emateko aukerarik izan ez baduzu, aurrean duzu aukera paregabea!

TESTUA: RAUL SAEZ DE BURUAGA  
ARGAZKIAK: EDORTA SANZ

**BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK**  
berreskuraturiko egurrez eginak  
eta **OSAGARRIAK**

artisan lanak  
lorategi eta barrualdeko-proiektuak  
egiten ditugu



Errementari (HERRE) 38, behea tfnoa.: 25 25 03 01013

**Xabier**

**taberna**

musika ona  
eta giro  
ezinhoba

Aiztogile (KUTXI), 23



# Abenduaren 26an Mendizorrotzara Zuk ere, Bai Euskarari

Gizarte-eragileekin argi dago zein motatako lana ari den Kontseilua garatzen, baina geure buruz, euskaldun bakoitzak, zer egin dezake ireki berri den prozesu honetan?

**E**ragile sozialen antzera, gutako bakoitzak konpromezu pertsonala hartu beharko du euskararekiko, Kontseilua-k hala eskatuko baitie euskaldun eta euskaltzale guztioi hilaren 26an euskal hiriburuetan burutuko diren jai erraldoietan.

GEU GASTEIZ aldizkariaren edizio hau ixtean, oraino ikuskizunera-ko hainbat gauza lotzeke zeuden. Nolanahi ere, argi dago egun honetan, hau da, hilaren 26an, arratsaldean, Euskal Herriko herrialdeetako hiriburuetako futbol zelaiak jendez beteko direla, oso erakargarri aurreikusten den ekitaldiaz gozatzeko.



ETB-k saio berezia eskainiko omen du egun honetan, euskal hiriburuetako jaialdiak elkarlotuz. Teknologia-ki oso paper garrantzitsua beteko du honakoetan, pantaila erraldoiak jarriko baitira ekitaldi-guneetan. Horrela, eskuhartzaileek gainontzeko hiriburuetan zer gertatzen ari den ezagutu ahal izango dute.

Askok eta askok gogoratuko du orain hogeit urte bizi izandako Bai Euskarari kanpaina hura, 1978ko ekainaren 17an San Mamesen buruturiko ekitaldi erraldoiarekin amaiera eman zitzaiona. Une horretan lagun anitzek euskara ikasteko konpromezua hartu bazuten, gaur, berriz, hori ahortzi gabe, beste konpromezu mota bat eskatzen zaio euskal biztanleriari; gure hizkuntza edonon erabili eta ahal dugun neurrian gure gizartean txertatzea.

Jaialdian bertan, kulturegileek hitza hartu bitartean, gutako bakoitzak 'Bai euskarari' konpromezua hitzez sinatuko du. Arabarrok, beraz, zita bat daukagu abenduaren 26an Mendizorrotzako futbol zelaian. Zerrenda pasatuko da; ezin dezake inortxok ere hutsik egin!

Josu Olanok, Arabako kanpainaren koordinatzailea, jendea jaiaren parte hartzera animatuz mezu zabal bat bidali nahi lioke orori: Ailegatu da momentua. Orain arte kriston ahaleginak egin ditugu, seguru, bai pertsonalki, baita kolektiboki ere. Oso ondo egin dira gauza batzuk, beharbada ez hain ondo beste batzuk. Gauza berriak plantzeatzeko oso une egokian gaude. Euskararen garaia heldu da, euskarak denon esfortzua behar du.

RAUL SAEZ DE BURUAGA

## HAUEK ERE BAI...


...esan zeuk ere **BAI EUSKARARI!!**  
izena eman **dek**  
euskararekiko eta barnetegietan

*intrales*

**BEIRATE ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1  
Tfno. 14 64 10  
GASTEIZ

**MIKEL DELIKA**

**EGOA LIBURUDENDA**

**LIBURUAK • MUSIKA • MATERIALE BIRZIKLATUA**  
Manuel Iradier kalea, 9-A Tnoa. 14 88 95

**IZTABERNA**

**BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 43 00 73**

jo eta ke

**TXAPELARRI**

**TABERNA**

Aiztogile (KUTXI) kalean

geu gasteiz





## Rock eta bluesaren LASAITASUNA

Musikari askok sartu, egon eta utzi ondoren, gaur egun Bandar-Log laukotearen kideak ederto bateratuta daude eta ez dute aldaketa gehiagorik nahi. Hiru urteetan zehar taldeki-deen joan-etorriak pairatu eta gero, 96.-ean Bandar-Log tinkatuta zegoen eta zuzenekoak gero eta ugariagoak ziren. 98.-aren hasieran *Cara o Cruz* abestia zela medio, Gasteizko Udalak babesturiko Pop-rock-aren *Bigarren Hamabostaldia* izeneko disko-bilduman parte hartu zuten, eta gaur, urtearen amaieran, Abetxukoko *Estudios El Pezen* grabatu lana kaleratze-ar dute.

**M**arraski bizidunzalea denak Oihaneko Liburuan agertzen diren tximino bahitzaileak direla erantzungo digu; denbora guztia ondo pasatzen, abesten eta jaten ematen zuten tximinoak. Gure hiriko musika mundua ezagutzen duenak, berriz, Bandar-Log Gasteizko rock eta blues laukote bat dela esango digu, koloretako blues-ean eta rock and rollean aritzen diren lau lagun, kalitate handiko musika sinatzen duen talde bat.

**Honetaz guztiaz eta agertze ar duten diskoaz berbetan izan ginen Alfredo eta Luis Albertorekin.**

**Taldeko ahotsa emakumezkoa izatea aurrez pentsaturiko asmoa da?**

Ez, alde zuzeneko gabe gertatu zen. Mónica Almudenarekin, baxujole ohia, entsaioak entzutera etortzen zen. Behin karaokeetan ondo moldatzen zela esan zigunez, animatu genuen gurekin abestera. Oso gogoko izan genuen ent-

zundakoa, eta taldearen abeslaria izatea proposatu genion. Baietza eman zigun.

**Zaindu beharko duzue Monicaren ahotsa, gehienbat Euskal Herrian rock abeslari onak soberan ez ditugula kontuan hartuz.**

Bai, egia, Monica taldekiderik onena da. Ahots ederra dauka. Dena den, erne ibili gara eta bere kontratuari ezeztapen-klausula garesti bat gehitu diogu (barreak).

Aukeratuta eta erabakita al duzue diskoa osatuko duten abestiak zeintzuk izango diren?

Nahiz eta inprobisazioari beti tarte bat utzi behar diogun, bai, erabaki dugu zeintzuk abesti grabatuko ditugun, eta beraz, gogor lantzen ari gara lokalean. Estudioa alokatzea garestia denez, ez dugu denbora galdu behar. Azken hiru urteetan zehar bildutako kante beteko dute diskoa; hamar kanta guztira, denak geuk sortutakoak. Blues klasikotik rock and roll arineraino, erritmo lantinda-



rrak...; soinu akustikoak zein elektrikoak ahaztu gabe.

## Zuzenean jotzen duzuen bertsioren bat grabatuko al duzue?

Ez, guk sortutakoak bakarrik grabatuko ditugu. Bertsiok klasikoak dira, eta talderen soinua bateratzen lagundu ziguten arren, ez dira guk eginak, ez dira gure seme-alabak. Egun, bertsiok lehengo garrantzia galdu dute gure zuzenekoetan, nahiz eta horien bidez errepertorioa luza dezakegun. Orain jotzen dugun bertsiok bakarria Eagles-en *Hotel California* ospetsua da. Horixe kanta eder-rra!

## Taldearen izenaren ondoan agertzen dituzuen R&B siglen bitartez rithm and blues musikan aritzen zaretela aipatu nahi al duzue?

Badakigu bi sigla horiek jendea nahas dezaketela, baina ez, gureak rock and rolla eta bluesa dira; ez, ordea, rithm and blues-a. Gure soinua basikoa izan ohi da, bai jotzen ditugun musika tresnei bai erabiltzen dugun teknikari dago-kienez. Ez dugu esperimentazioaren alde jokatzeko. Gure ahaleginak beste arlo batzuetarantz zuzentzen ditugu; bluesa gaztele-raz abestera, adibidez. Espainieraz errimak topatzea lan gaitza da. Ingelesak, berriz, erraztasun handiagoa eskaintzen du. Rock and rollaren kasuan desberdina da, erdaraz bluesa baino askoz atsegi-

Harremanetarako telefonoak:  
945 26 00 65 (Alfredo)  
945 27 32 68 (Luis Alberto)

Azken hiru urteotan zehar bildutako kante-ko beteko dute Bandar-Log taldearen estreineko diskoa

nagoa da-eta.

## Rock and rolla bai; ez, oster, rock arina.

Egia. Gure abestietan erdiko erritmoak nagusi ditugu. Betiko rock and roll eta bluesean oinarritu arren, lau taldekideok erritmo lasaien bila gabiltza, 4x4 naretsuaren bila, hain zuzen.

## Eta Bandar Log-en hitzek blues eta rock klasikoarekin zerikusirik al dute?

Bai, HIESA eta errepidea gure hitz askotan agertzen dira. Dena den, zenbait gai gehiagoz ere idazten dugu: etorkinen arazo larriak, bizitza bera, eta kritikaxoren bat edo beste, esaterako.

## Eta Orain, Pop-Rock-aren Bigarren Hamabostaldia izeneko disko-bilduman esku hartuz geroztik, laster zuen lehenengo lan osoa kalean izango dugu.

Bai. Lan serio bat gauzatzen saiatuko gara, baina kontuz!, serio hitzarekin ez dugu adierazi nahi abestian

aspergarriak izango direnik, baizik eta emaitza onaren bila gabiltzala. Grabatu ondoren diskoetxe eta enpresa banatzailea bilatuko ditugu. Nolanahi ere, grabazio osoaren gastu guztiak geuk ordaindu beharko ditugu, eta gero, inor interesatuta agertuko ez balitz, gu geu arduratuko ginatexke argitaratze eta banatze lan horietaz.

## Beste musikariren batek lagunduko al dizue diskoa grabatzen?

Bai. Alde batetik, Almudenak, orain Aguraingo Desterrados taldekoa, baxua grabatuko du kanta guztietan. Zuzenean Monicak jarraituko du baxua jotzen, baina grabazioa gauzatzeko nahiago izan dugu kalitate handiagoko musikari bat izatea, eta horixe Almudena da. Bestetik, Claudio harmonikan eta perkusioan arituko da. Bai Claudiok zein Almudenak gurekin jo dute behin baino gehiagotan, eta era batez edo besteaz gure abesti orotan izango ditugu.

## Beraz, Claudio eta Almudena lokaleko saioetan izango dituzue.

Orain bai, egun hauetan gurekin batera dihardute lanean. Hala eta guztiz ere, grabazioa amaitu bezain pronto joango dira. Agian, kontzerturen batean lagunduko digute, baina hori noizik behinkakoa izango da bakarrik. Grabazioan parte hartzera animatu dira, eurentzat esperientzia berria delako, eta baita guretzako ere!



TESTUA: TXABI ARNAL GIL  
ARGAZKIAK: EDORTA SANZ

**GASTEIZ**  
**DIBUtec**  
Lamazuri, 7 - Tel. 23 30 01  
• Material escolar y de oficina  
• PAPER BIRZIKLATUA  
• Fotokopiak kolorez eta Zuri-Beltzean  
Arte ederretarako... behar duzun guztia

**PAPERTEGI TEKNIKOA**

**BAR KLAKÉ**  
KUTXA, 2  
TFN. 143883  
GASTEIZ

**OGZO EITORRI**  
**xurrut**  
  
**KUTXI 103 GASTEIZ**

**axular**  
**LIBURUDENDA**  
Arka plaza, 11 - 01005 GASTEIZ

IB  
geu gasleiz





## gaurkoak eta betikoak

rock'n'rolla-aren historia formato berrian



Azkar, oso azkar, gertatzen ari da azkenengo 10 urte hauetan euskal rock

and rollaren garapena. Badirudi galdutako denbora lehenbailehen berreskuratu nahi dugula, gure musika punta-puntan egon daitekeela erakutsi beharrean gaudela.

Nola edo hala, gure rock and rollaren bilakaera azkarregi gertatzen ari delakoan gaudenez, irribarre zabal batek estali zigun aurpegia The ImpresenTableak talde arratiarra entzun genuen lehenengo aldian, eurek ez baitute presa handirik XXI. mendeko rockari heltzeko, beharbada rock and rolla beti abangoardia izango dela uste dutelako. Eta horixe izan dute irizpide garbiena Dimako lagunek orain dakarkiguten lan hau gauzatzekoan: betiko rock and rollaren erritmoetan funtsatuz, sustraietara bueltatu eta rockaren freskotasuna berreskuratu.

Eta egia esan, aurrez pentsaturikoa eta azkenengo emaitza ez dira, ez, elkarren ondotik urrun gelditu.

**IZENBURUA:** AITAREN ETXEAN.

**TALDEA:** IMPRESENTABLEAK.

**DISKETXEA:** DRAGON.

**URTEA:** 1.998

Ez dut pizterik abestiak diskoa irekitzen du. Horra hor Maixa eta Ixiaren laguntzaz eginiko The Rolling Stones-en klasiko baten moldaketa bitxia (*Let's Spend The Night Together*). Stones euskal erara, iradokigarria. *Cambio de guardia* eta *El Club de los Poetas Muertos* kantek taldearen ezaugarri nabarmenenak biltzen dituzte: erritmoa, riff indartsuak eta rock-melodia. Ez dakiten errepika borobilek eta erdiko erritmoek ez dute inongo arazorik izango edonoren belarrietan sartzeko. *Algo dentro* eta *Aitaren etxean* lan honen unerik lasaienak ditugu, *Que es Rock'n'roll*, berriz, arinena delarik. *Gexo Nagok* eta *Joi Hemetikek* rock and roll hutsaren eremuetan barneratzen gaituzte berriz ere, eta *Wintertime lovek* sorpresa bat ekartzen digu: Jim Morrison-en olerki bat The ImpresenTableak-en musikak lagunduta. Melodiko eta indartsua. Ederra. Besterik? Bai. Dendetan topatzea zaila denez, eskuratzeko telefonozenbaki hau gogoratu beharko duzuela: Miriam 94 673 67 48.

TXABI ARNAL GIL

## beste batzuk

**KANTATE**

**andreas scholl**

HARMONIA MUNDI



Disko honetan proposatutako konposizioek, konpositore alemaniarrek XVII. mendearen hasieran Italiatik iritsitako ideia berriak bertako tradizioarekin uztartzeko erakutsi zuten artea islatzen dute, edertasun eta aberastasun izugarriko lanak egin baitzituzten. Estiloaren esparruko iraultza honek oinarritzko generoak (ahots-soloak, kantata, kontzertu izpirituala) hedatzeko aukera eskaintzen du. CD honetan gaur egungo kontratenor onenetakoaren teknika bertuosaren ahotik entzun ditzakegu genero horiek, Andreas Schollen ahotik hain zuzen, eta, gainera, generoko konpositore bikainen lanak entzun ahal izango ditugu: Schutz, Buxtehude, Erlebach, Tunder etab.

**LORQUIANA**

**ana belen**

BMG-ARICLA



Ezin esan daiteke Lorcaren poesia-lanak musikaren beharra duenik bere mezua pasio handiagoz adierazteko, baina Lorcak berak izaera herrikoia zuten bere lan batzuei musika jarri zien eta pianoaz lagundu zituen. Egileak urrututako bide horri helduz eta nazioarteko pop musikaren konpositore handien doinuekin (Cohen, Guerra, Serrat etab.), Michel Camilok Lorcaren poema-bilduma bat eskaini digu (musikatzeko zenbait moldaketa egin du) Ana Belen ahots sugerente eta garbiaren bidez, ardoaren antzera urteen poderioz hobetuz doan ahots goxo horren bidez. Ez galdu, gero, honako lana entzuteko aukera.

## hileko diskoa



**AHUEN SINFONIKOA**

**benito lertxundi**

ELIXARLANEAN

Kontu handiz aukeratutako kantak ditugu lan honetan entzungai, Benito Lertxundiri kantatutako lanetan maiz entzun dizkiogunak, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren soinu bizi eta ederraz lagunduta Enrique Ugarteren zuzendaritzapean; zuzendariak zenbait moldaketa egin du ahotsari egokitzeko,

CDko doinuek biltzen duten ahots horren ametsen murgil gaitezen. Swing, Blues eta Folkaren eragina suma daiteke doinu eder hauetan, Benito Lertxundik beti eskaini ohi digun zintzotasunarekin, bizipen pertsonalak direnean areago senti daitekeen zintzotasun horrekin hain zuzen. Entzun, bestela, *Udazken koloretan* kanta, inoiz itzuliko ez den adiskideari eskainia, eta utzi gogo-gorputzak balsaren doinu eder honek malenkonia eta itxaropenari egindako mezuaren altzoan.

**Hileko diskoa eta beste batzuk sailtako diskoak AXULAR liburudendan daude salgai.**

**ARKA PLAZA, 11.**

**plató**  
TABERNA

☎ 22 65 64

**GASTEIZ**

**Zaldiaran Plaza, 10**

**JANTZI ETA OPARIAK**

Aiztogile (KUTXI), 27  
Tfnoa: 26 07 10  
**GASTEIZ**



**LA RIOJANA**

**jatetxea**  
*on egin!*

**bokatak, pintxoak, kazuelatxoak**

Aiztogile (KUTXI), 33 tfnoa. 25 02 39



# piti-pata

txikiaren orrialdeak

GEU GASTEIZ ALDIZKARIA

## GABONETAKO HAURRENTZAKO PARKEA

ipotxak, biratzen duten kirol saskiak, rokodromoa, trenbidea, puzgailuak, kirol guneak, ordenagailuak, interneta, planetarioa, makilaia gunea, haur parkea, motor elektrikoak, disc-jokeyak, sikomotrizidade jokuak...

Abenduaren 28tik urtarrilaren 6ra  
Mendizorrotzako polikiroldegian



## Rasa euskaraz ez zekien ardi nafarra

## futbolean blai

Arkaitzek gazte askok duten nahia lortu du: Zaramagako futbol taldeko aurrelaria izatea. Bai, bai aurrelaria; hau bai dela golak sartzeko lekurik aproposena. Ala ez?

Arabako Txapelketa noiz hasiko zain, itxaropentsu agertzen zaigu bere taldearekin, eta pasa den urteko



laugarren postua hobetzea espero du.

Zaramagan jokatzen du bai, baina aurtan, nola ez, Alavesen ligaren ibilbideari oso gertutik jarraitzen ari zaio, baina bere ustez lan handia egin beharko dute jokalariek datorren urtean lehenengo mailan segitu ahal izateko.

Hala izan dadila!

HILEKO HILEKO HILEKO **LAGUNA** HILEKO HILEKO HILEKO





## Rasa, "veeka" aritzen zen ardia

Txabi Arnal Gil


DDB argitaletxea, 1998.

Rasa arkumea triste dago. Kezka handi bat dauka. *Beeka* ordez *veeka* egiten du eta. "Ama, ¿por qué yo no valo igual que el resto de las ovejitas del rebaño?" Hauxe Rasaren amak erantzuten ez dakien galdera. Eskerrak artaldeko andereñoak konponbidea topatu duela: Iparraldera joan ardi euskaldunekin *beeka* egiten ikastera. horra hor uda pasatzeko plan zoragarria: familia ezagutu, *beeka* ikasi eta Nafarroan zehar ederra egin. Kaixo Pirineoak! Gero arte Erribera! Agur arazoari?

## Hogeita bost ipuin motz

Txabi Arnal Gil

DDB argitaletxea, 1998.



Tituluak berak argi eta garbi azaltzen digunez *Hogeita bost ipuin motz* liburua kontu labur asko biltzen dituen lana dugu. Protagonista nagusia bilatu behar izango bagenu ipuin guzti hauetan zehar, horixe irudimena genuke. haurrak, helduak eta agureak, abereak eta piztiak. Edozein gauza, biziduna ala bizitzarik gabekoa, badaiteke ipuin harrigarri hauen pertsonaia izan, eta pertsonaia hauei edozein gauza gerta daiteke.

8 urtetik aurrera

# ZER DA ZURETZA



*Juan Jesus, 7*

urte

Olentzero da opariak ekartzen dituen gizon zahar eta bizarduna. Mendian bizi da eta 47 urte ditu.



*Jon,*

7 urte

Gizon oso handia da, nire aitaren urteak izango ditu eta erregeak baino hobeto portatzen da nirekin.

*Luis,*

Trad zuridu konp egiten du bi



## HIZKI-ZOPA

Kirolak.

Hile honetan natura ezagutzea tokatu zaigu eta horretarako albo-ko hizki-zopan galdu zaizkigun zazpi zuhaitz mota aurkitu behar-ko dituzue.

Ea gai zareten!

# geugenjeim

## ODON DE APRAIZ IKASTOLA

Sergio

Sugoi





AT...



is Alberto, 6  
 urte  
 dizio bat da, bizar  
 una eta erregeekin  
 aparatuz astiroago  
 bere lana, hauek  
 gehiago direlako.

OLIBENTZAKO



Testuak: Itziar Uriarte / Asier Pz. de Karkamo Argazkiak. Edortza Sanz

**Kangeuroak**

**HAURRAK  
 ZAINTZEN  
 BITUGU**

GOIZEZ		ASTEBUVRAN	
NEKANE	26 91 53	MONTSE	26 78 12
EDUARDO	14 21 99	AINARA	23 38 28
LEIRE	27 32 81	TXARO	28 08 85
LORENA	27 10 13	MAIDER	24 90 62
AINARA	24 04 42	ARRATE	25 64 01
ANA	26 65 95	PATRIZIA	13 93 37
ERIETE	29 96 50	ASTEBUVRAN	
ESTITXU	27 65 07	OLATZ	25 61 20
ARRATSALDEZ		MONTSE	26 78 12
OIHANA	25 30 35	ARRATE	25 64 01
AINTZANE	27 09 64	PATRIZIA	13 93 37
IRATXE	24 51 81	LEIRE	23 12 23
AINARA	23 38 28	JOSE ANGEL	27 62 14
LORENA	27 10 13	SAIDA	26 58 05
PATRIZIA	27 78 19	IDOIA	24 47 79
LEIRE	23 12 23	MAIDER	24 90 62
MAIDER	24 90 62	BELEN	13 65 10
ESTITXU	27 65 07	MONIKA	13 86 21
GAVEZ		ITZIAR	13 86 21
IDOIA	24 47 79	M. JESUS	13 54 35
LORENA	27 10 13	ESTITXU	25 99 60

ATAL HONETAN AGERI NAHI BADUZU DEI  
 HONAKO TELEFONO ZENBAKIRA:  
 945 22 21 53



Haurrak zaindu nahi badituzu Geu Gasteizek  
 lehio ezinhobea eskaintzen dizu. Deitu gure  
 telefonora eta goiko zerrendan ageriko zara.  
 (945 22 21 53)

**AGENDA**


Ludoland entpresak 37 milioi  
 pezeta (bai, ondo irakurri duzue)  
 gastatuko ditu Gasteizko haurrek  
 gabon hoberenak igaro ditzaten.  
 Imagina dezakezue diru horrekin  
 guztiarekin zer nolako Haur Par-  
 kea antolatu daitekeen: motorrak,  
 kirol guneak, ordenagailuak, plane-  
 tariora, rokodromoa eta askoz gauza

**GABONETAKO  
 HAURRENTZAKO  
 PARKEA**

gehiago ere. Parkeko ekitaldi gehie-  
 nek gai bat izango dute: haurren  
 eskubideak. Badakizue orain 50  
 urte bete direla... Gure aldetik  
 Gabon zoriontsuak eta ondo-ondo  
 pasa dezazuen opa besterik ez.

*Abenduaren 28tik urtarrilaren 6ra arte*

**nork esan du guk marrazten ez dakigunik!?**





# berri berriena

datozen denborekin bat



## HELBIDE BERRIA

*geugaste@grn.es*

g e u g a s t e i z a l d i z k a r i a

A modern bedroom furniture set is shown in a room. The set includes a wooden bunk bed with a ladder, a desk with a chair, and a tall bookshelf. The room is decorated with a framed picture, a plant, and a rug. The furniture is light-colored and has a clean, minimalist design.

**kide**

**APAINDURA**  
Zerkabarren (Cercas), 27 Tfnoa: 14 41 95 GASTEIZ

**k**



Legealdia amaitzeko urte erdia baino ez geratzen denean Gobernu egitaraua osorik bete egin dela dio. Diputazioaren jarduera politikoak jaso dituen kritikak baztertu ditu eta azkenengo lau urteak **ekonomikoki ikusgarriak** izan direla dio ziur eta inolako zalantzarik agertu gabe. **Su-etena** eta gero zabaldu den epe berriari buruz elkarrizketaren bidean hasteko baldintzak ematen direla azpimarratu du.

TESTUAK: LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI ARGAZKIAK: EDORTA SANZ

# FELIX Ormazabal

Oso une itxaropentsua bizitzen ari gara

**D**ola baloratzen duzu amaitzear dagoen Legegintzaldi hau?

93ko krisi ekonomiko larria amaitzen ari zela hartu genuen Diputazioaren ardura eta berrindartze ekonomikoaren aldeko apustua egin eta irizpide zehatzak markatu genituen: ekonomi jarduera sortzeko inbertsioak egitea. Ikuspuntu horretatik urte hauek benetan ikusgarriak izan dira, langabezi tasan 22tik 12ra pasatu gara, eta inbertsio berriak erakartzearekin batera lehendik zegoen sare ekonomikoa ere indartu egin da.

Politikoki gobernu-koalizioa ez zela ondo atera egia da. PSE-EE-k Gobernutik irten aurretik ere oposizio moduan jokatu izan du askotan, baina beraien agurra eta gero itun politiko handien beharrik gabe atera ditugu gaiak aurrera.

Eta ilusioz beteriko legegintza amaiera izaten ari gara terrorismoaren gaia dela-eta. Oso itxaropentsu

gaude, eta guztiok dakigu zein den hau betirako konpontzeko bidea: elkarrizketa. Eta orain bide horretan aurrera egiteko egoera ezin hobean gaude.

**Legegintzaldia amaitzeko sei hilabetera gaudenean gai garrantzitsu batzuk konpondu gabe geratuko direla ematen du: Trebiño, Etxegarate,...**

Trebiñoko auzia lehen baino hobeto dago, edo ez horren gaizki, behintzat. Madrilgo Gobernuak Euskal Legebiltzarrak egin zion eskaerari emango dion erantzunaren zain gaude, baina gaia horren logikoa izanik lehenago edo beranduago konpondu behar da.

Etxegarate arazo izan daiteke guretzat, baina ez da gure erabakia. Gure zatia egina dago. Orain Gipuzkoako Diputazioa eta Nafarroako Gobernuaren esku dago errepidea eta, nik dakidala, aurrera doa eta 2002rako amaituta egongo da.



Eibar-Gasteiz errepidearen proiektua egin dago eta Gipuzkoarekin akordioa bilatzen ari gara konexioa non egingo den zehazteko.

Nik esan behar dut programan zegoen guztia bete egin dela. Hala ere, bizitzak aurrera darrai eta errepideak behar dira, baita nagusientzako egoitzak, langabeziaren arazoa hor dago,...

**Diputazioak erakarrirako inbertsioek kritika gogorak jaso dituzte, Daewoo kasu.**

Kasu batzuetan, Daewoon adibidez, demagogia merkea egin du zer esaten ari den ez dakien jendeak. Gero lanpostuak sortzearen beharraz hitz egiten dute, baina galdetu behar ko zaie nola sortzen diren lanpostuak. Soldata sozial baten bidez? Agian hori esan nahi dute. Langileen egoera ekainean zuzendu zen; hasierako arazo normala izan zen.

Gertatzen dena da nekazari-lurra berkalifikatu gabe dagoen edozein lursaila dela. Etxebizitzak, lantegiak edo dendak eraikitzeke nekazal-eremuko lurra hartzen da beti, berkalifikatu eta gero erabiltzeko. Baina ez dut uste Arabako arazoa lur gutxi izatea denik; 3.000 Km<sup>2</sup> ditu eta gehiena libre dago.

**Legegintzaldi guztian zehar azpimarratu duzue Gasteizek Araban duen gehiegizko pisu hori orekatu egin behar dela; alabaina, duela gutxi Gregorio Alonso diputatuak esan zuen Gasteizek dituen zerbitzuak herrietara eramatea ezinezkoa dela.**

Arabako egoera zentzu horretan oso harrigarria da. Ditugun 285.000 biztaleetatik 217.000, Gasteiz eta inguruko herrietan daude, beste

*Arabako egoera harrigarria da oso. Ditugun 285.000 biztaneetatik 217.000 Gasteiz eta inguruko herrietan daude.*

herri bat gutxienez garatu beharko litzatekeela uste dugu, eta horretarako aktibitate ekonomikoa dibertsifikatu beharra dago, nekazaritzak ezin baitu hori lortu. Nolanahi ere, lehen uste zen herrietan lanpostuak sortu ahala populazioa berreskuratuko zela. Egun, hori ez dela horrela ikusi dugu, eta beste bi puntu hartu behar dira kontuan: etxebizitza eta garraioa.

**Diputazioaren aurrekontuak urtea amaitu aurretik onartu behar dira; zeintzuk dira datorren urtekoaren irizpideak?**

Aurrekontua iaizkoa baino %9,6 handiagoa da. Inbertsioak %14 igoko dira eta udalerriei eman ohi zaien dirua ere dezente handituko da: %11, zuzenean 20.000 milioi pezeta ematen zaie. Diputazioaren aurrekontua guztira 41.000 milioi pezeta da, kupoa, Jaurlearitza dagokiona eta udalena ere kenduta.

Duela lau urte jarritako helburua aurtengo aurrekontua 40.000 milioi ingurukoa izatea zen, eta zorra 12.000 ingurukoa. Aurrekontuak 41.000 milioi du eta daukagun zorra 4.000 milioi da.

**PFEZ-en jaitzierak ez dio 1999ko aurrekontuari eragingo, baina eragiten dionean, zer? Egin duguna izan da aurreikusten den jait-**

siera hori hiru urtetako aurrekontuetan banatzea. Baina gainera zerga berriagatik jasoko diren 5.000 milioi pezeta gutxiago horiek ekonomiaren hazkundeak orekatuko ditu. Aurrekontuek ez dute jaitziera hori nabaritutuko.



Arabian lursail handiak daude, baina poligonoetan ez omen da lekuri geratzen. Nekazariak beraien lurra hartzen dela esan dute, *Transpapel* eraikiko den lurra, esaterako. Arazorik egongo al da lurra bi erabilpenak uztartzeko?

35.000 Aiaran, 10.000 Errioxan eta gainontzeko 25.000 lurralde osoan barrena sakabanatuta, 380 herrixkatan banatuta. Horrek arazo larriak sortzen ditu zerbitzuak emateko, kostea ikaragarria delako.

Horrexegatik eskualde bakoitzean



**Sindikatuak hori ezinezkoa dela salatzen dute.**

Ez da ezinezkoa. Ekonomia hazi egiten bada, diru gehiago jasoko dugu, azkenengo urteetan gertatu bezala. Iaz uste baino 7.000 milioi gehiago jaso genituen; aurten hori gertatuz gero ez dago arazorik.

**Lizarrako Akordioaren aurretik ere behin baino gehiagotan aipatu zenuen Gobernu abertzalearen esperientzia aurrerantzean kontuan izan beharreko zerbait bezala. Nola ikusten duzu orain?**

Dena dela, nik esan nahi nuena zen Gobernu honek emaitza ona izanez gero, PNV eta EA-ren arteko kolaborazio estuagoetarako bidea izan daitekeela. Adibidez, hurrengo hauteskundeetarako zerrenda bateratuak egin zitezkeela nioen.

**Udal eta Foru hauteskudeei begira?**

Nik hori esan nahi nuen, bai. Hala eta guztiz ere, ETA-ren su-etenaren ondoren egoera zeharo aldatu da, baina oraindik HB-k, EH-k, ez du bere jarduera politikoa zeharo normaldu, eta nik uste transizio epe bat egon beharko duela. Ziurrenik lege-gintzaldi hau transiziokoa izango da.

*Gobernu abertzaleak emaitza onak izanez gero EAJ eta Earen arteko kolaborazio estuagoetarako bidea izan daiteke.*

**Hiruko Gobernuaren errepikatuko dela esan nahi duzu?**

Seguruena, egoera kontsolidatu barik dagoelako. Bestetik, beraiek kanpotik esku hartzeko aukera aipatzen dute, zeren oraindik ez baitute erakundeetan parte hartzeko ohiturarik, eta seguruki egunero Gobernu bat sostengatzea zer den ere ez dakite. Horregatik zaila da komenigarriena zer den argi izatea; espainiar nazionalista eta abertzaleen arteko Gobernu edo abertzaleena bakarrik.

**Egunotan ere esan da EAJ-k PSE-rekin akordioa nahi duela hurrengo hauteskudeen ostean Arabako Foru Aldundia ez galtzeko.**

Esan, denetik esan daiteke. Argi

dagoena da Araban indar estatisten aldeko emaitzak daudela. Baina ez dakigu Gobernu abertzalea osatuz gero, alderdi estatalistek ere bloke moduan funtzionatuko dutenentz diputazio eta udaletan. Erantzun gabeko galdera asko ditugu egoera berri baten aurrean gaudelako. Hala ere, abertzaleen arteko Gobernuaren bakegintzan aurrera egiteko biderik onena dela jakingo banu, nik ez nuke ez bairik izango.

**Atzo bertan Aldundiko Gobernuak hiru preso arabar kaleratzea eskatu zion Madrilgo Gobernuari. Egoera berri horren barruan kokatzen da eskaera hori?**

Ez, ez da horregatik izan. Horko kanpoko eskailera horietan uneko bahiketak eta hilketak salatu bitartean, hurbilketa ere eskatu dugu. Oraingo eskaera ere justizia eta legean oinarritzen da.





# Baserritarra zen ITSASGIZONA

**Datozen lerrootakoa ez da gaurko kontua. Halere, nolana-  
nahiko kontua ez denez, berreskuratu nahi izan dugu.  
Bazenekien laudiar batek munduari bira eman ziola Elkano-  
ren modura? Ezetz? Ba... besterik gabe, hona hemen Juan  
Sebastian Elkanoren azken bidaia, Eneko Atxaren eskutik.**

**E**z dakigu zehatz-mehatz noiz jaio zen Juan Sebastián Elkano itsasgizona. Badakigu XV. mendean izan zela Getarian, baina ez dugu urtea zehazten duen agiririk. Egia esan, historiak oso aintzakotzat hartzen ez duen pertsonaietariko bat da Elkano. Berak lortutakoa, lurreko itsaso guztiak zeharkatzea, alegia, aipatu eta jakin beharrekoa da, baina liburuek ez dute behar den moduan islatu. Are gehiago, historialari batzuek egoista zela leporatu diote.

Kontuak kontu, munduari bira eman zion aurreneko gizona Elkano izan zen. 1519an hasi zen hiru urteko bidaia luzea eta gogorra. Magallanes burua zela, Sanlúcar de Barrameda herritik bost itsasontzi eta 250 lagun inguru atera ziren itsasora. Bide erdian Magallanes hil zen, Elkanok tripulazioaren ardura hartu zuen orduan, eta azkenik, 1522an etxean zeuden abenturazaleak berriz. Hori bai, itsasontzi bakarra eta 18 lagun baino ez ziren bizirik itzuli, gainerakoak bidean hil baitziren. Bitxikeria gisa, bira osoa egin zuen itsasontziak 'Victoria' zuen izena.

## Prentsa-iragarkia

470 urte beranduago bi euskaldunek gauza bera egitea lortu zuten. Bi urte itsasoan eman eta 50.000 kilome-

tro egin ondoren, Patxi Lopez nafarrak eta Eneko Atxa arabarrak Getarian bukatu zuten munduko bira 1992an. Istoria zoragarria denez, berreskuratu dugu orrialdeotan, eta horretarako, Eneko Atxa laudiarrekin egon gara hizketan. Bere iritziz, euskaldunok ez dakigu egindakoa saltzen. *Colonek egindakoa oso garrantzitsua izan zen garai hartan, baina ez zuen zerikusirik Elkanoren bidaiarekin. Ez zaio, aldiz, garrantzirik ematen. Colón liburu guztietan agertzen den bitartean, Elkano ez. Ez dut ulertzen.*

*Itsaskiak enpresa, Elkanoren bidaia gogoratu nahian, munduari bira emateko proiektuan buru-belarri sartu zen. Itsasoratzeke prest zeuden gizon-emakumeei zuzendutako prentsa-iragarki batek 140 bat lagun bildu zituen Getarian. Marinel kopuru egokia lau zenez, hautaketa ez zen erraza izan. Hain zuzen ere, hautatuetariko bat Eneko izan zen, eta gertatu ohi den legez, hautaketa ez zen*



Colón  
liburu  
guztietan  
agertzen  
den  
bitartean  
Elkano  
ez:  
Ez  
dut  
ulertzen.

guztien gustukoa izan, baserrian jaioa naiz, ez nuen itsasoa ezagutzen. Kanpoan geratu ziren batzuek esperientza eza leporatzen zidaten, baina antolatzaileek horixe erakutsi nahi zuten: Itsasoari eta itsasontziei errespetu handia behar zaie, baina ikasiz gero, edozeinek egin dezake bela, azaltzen du. Antolatzaile Patxi Lopezek gogoratzen duenez, oraindik ez dakit zergatik aukeratu genuen, baina itsasoan liluraturik ikusten nuen eta...

## Une latzak

Lau hilabetetan ikasi beharreko guztia ikasita zegoen. Antza, zailena



**HEGOALDE**  
euskaltegia

Jose Lejarreta kalea, 9 behea  
tfnoa 28 41 96  
01003 GASTEIZ

matrikula  
zaitez!

## ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak  
automatismoak  
girotzeko musika  
eta segurtasuna

**GURIA**

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95  
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR



ez zen ikastea ala belauntzia egitea suertatu, dirua lortzea baizik. *Munduari bira belauntziz egitea, bai zera!* esaldia askotan entzun behar izan zuten. *Babesle askok ez zuen sinesten, azaltzen du irribarretsu Enekok.* Lehorreko oztopoak behin gaudituz gero, itsasoratu zen Gipuzkoa izeneko belauntzia. Gure protagonistak bizimodu berri bati ekin zion orduan, *supermerkatu batean lan egiteari utzi nion; pilota eta mendia, nire orduko kirolak, ahaztu nituen. Oharkabean lehorrean geratu zen dena; izan ere, orduetik erabat aldatu da nire bizimodua.*

Txapela buruan eta ibili munduan. Bi urtez ozeanoetan gertatutakoa eta ibilitakoa azaltzerik ez dago lerroetan. Marinelak horrela laburtzen du: *Askotan bidaia bukaezina gertatu zitzaigun, lau irten ginen arren, bide erdian bi bakarrik geunden, Patxi eta biok. Normalean, belauntziek mende-*



*baldetik ekialdera egin ohi dute ibilbidea, baina guk Elkanoren bidaia bukatzea dugu belauntziz. Ez da harritzekoa, bertan eguraldi aldakorra, itsas korronteak eta hurakanak nagusi baitira.*

Unerik latzena azken etapan izan zen. Indiar Ozeanoan negu gorria zen. *Une hartan, itsasoak zer-nolako indarra duen erakutsi zigun. Ekaitza izugarriak itsasora bota gintuen -ez dakit nola, baina ez ginen hil- eta itsasontzia oso gaizki zegoen arren, aurrera egin genuen. Esan bezala, 1992an Getariko portura heldu ziren. Azken urteotan Eneko Atxak ez du supermerkatuan lanik egin; Itsas ikasketak, Zuazako begiralea,*


*windsurf irakaslea, nazioarteko estropadetan lehiakidea, ibilbideak Kantabriar Itsasotik... Makina bat saltsatan dugu laudiarra, baina beti itsasotik gertu; ez naiz damu, dio base-ritarra zen itsasgizonak.*

TESTUA: ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL  
ARGAZKIA: ENEKO ATXAK UTZIRIKOAK

Supermerkatuko lana utzi nuen.  
Harrez geroztik nire bizitza erabat aldatu da.



*genuen helburu -itsasgizon gutxik lortu dute- eta hamaika buruhauste izan ondoren bukatzea erdietsi genuen. Hala ere, Txileko Magallanes Itsasarte gogoan du Enekok oraindik: Nabigatzaileok beldur ikaragarria diogu Magallanes Itsasarteari. Horren ondorioz, oso itsasontzi gutxi igaro dira hortik; pentsa!, mende honetan guk bakarrik egin*



**OPARIAK:** ZERAMIKA, ZILARRA, POSTALAK...

**KAMISETAK:** BARABÚ, GREENPEACE, KOT, PERRETXIKOAK BASOAN...

**NONBAIT**

**EUSKAL OIHALAK**

Loma jeneralaren plaza, 5 • 01005 GASTEIZ • Tlf. & faxa: 945 13 93 09



## botepronton

### Vanessa Almeida

Belauntziko itsaskaria



**"Leku ezezagun ugari ditugu urtegieta"**

TESTUA: ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL

ARGAZKIA: EDORTA SANZ

*Garaipen garrantzitsuenak: Estatu espainiarreko eta Euskadiko txapelketak behin baino gehiagotan bereganatu ditu Vanessa. Oraintxe bertan, Olinpiadetako taldean dugu, horren ondorioz, eta Sidney helburua izanik, Bartzelonan ari da lanean.*

zailerik onenek 30 urte inguru dituztela, eta nik 20 baino ez ditut. Orain hamar urte hasi nintzen, eta esperientzia garrantzitsua da belauntzian.

**Gehienok urtegia kanpotik ezagutzen dugu, oso desberdina da barrutik?**

Erabat bestelakoa da. Haizeak zu menperatu beharrean, zuk menperatzen duzu haizea. Ildo beretik, urtegian leku ezezagun asko ditugu, esaterako, Zuaza irlaren ondoan beste txiki bat dago, eta bertatik ibiltzea zoragarria da.

**Lehorrekoa izaki, ez zatekeen erosoagoa saskibaloi jokalaria ala korrikalaria izatea?**

Maiz galdetu didate hori. Dena dela, Gasteiz Itsas Taldea Ullibarrin dugu, eta auzokide batzuen bitartez sartu nintzen bertan. Ustekabean gertatu zen.

**Itsaskaria jaio ala hazten da? Zer da beharrezkoa onena izateko?**

Gehienbat hazten da. Oso kirol teknikoa da, entrenatzaileak garrantzi handia du... Sasoi onean ez bazaude, ez dago ezer egiterik. Gure eguneroko entrenamenduetan ariketa fisikoak behin eta berriz lantzen ditugu. Azkarra behar duzu izan, gainera. Eta garrantzitsua: itsasoa eta itsasoratzea gustukoak izan behar dituzu, bihotzean eraman beharra daukazu. Sekreturik ez dago, entrenamenduetan orduak eta orduak eman, besterik gabe.

**Zeuk egin azken galdera!**

Nire ametsa lortuko dudala uste duzu?

**Bela pijoentzako kirola da? Zenbat balio du txalupa horietako batek?**

Kanpotik hori pentsa daiteke: Hor duzu pijo bere txaluparekin... Halere, ez da horrela, hasieran ez baituzu txaluparik erosi behar. Ni utzitako batekin hasi nintzen, gero bai, erosi nuen, eta milioi bat balio zuen. Egun, edozeinek parte har dezake bela estropadetan.

**Ullibarriko urtegia belauntzian aritzeko leku egokia ala arriskutsua da? Itsasoa egokiagoa al da?**

Udan leku ona da, baina neguan hotz handia egiten du bertan, inork ez du belarik egiten... Itsasoa da gure eremua, inoiz ahantzi gabe, noski, itsasoari errespetu handia izan behar zaiola... Ondo pasatuz gero, edozein lekutan sartzen ausartzen zara.

**Eta bela lanbidetzat har daiteke?**

Zail samarra da. Onena izan behar duzu; hor dago Munduko eta Olinpiadetako txapeliduna den Teresa Zabel. Berak egin daitekeela erakutsi du, eta nik adibidetzat hartzen dut.

**Alabaina, egun txarrak ere izango dituzu. Dena bertan behera uzteko gogo**

**duzunean, txalupa hartu, uretan sartu, eta dena ahazten duzu?**

Nahitanahiez entrenatu behar duzu egunero. Dena den, hori da nire bizimodua, eta atsegin zait. Gainera, horrela ez balitz, akabo, egunean zazpi ordu eman behar baititut honetan. Santaderren urtebete egon naiz, orain Bartzelonara joan beharra daukat... Aurrera egin nahi izanez gero, ezin zaitezke urtegieta geratu, Gasteizetik irten behar duzu, onenak itsasoan lehiatzen dira-eta. Astero ezinezkoa da etxetik Bartzelonara joatea, eta Bartzelonatik etxera etortzea. Horren ondorioz, datozen urteotan Bartzelonan biziko naiz. Badakizu, kirola, ikasketak, lo egin... eta aisialdirik ez.

**Goiz altxatzen zarenean, hobetzen saiatzen zarenean, gogorik ez, baina egiten duzunean, hotz handia egin arren, uretan sartzen zarenean... Zerekin egiten duzu amets?**

Zereginari eusten badiot, nire ametsa lortuko dut: Munduko txapelketa ala Olinpiadetan domina bat nireganatzea. Nolanahi ere, gaztea naiz oraindik. Kontua izan, munduko hamar nabigat-



izozkiak



arropa eta osagarriak  
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!

Pintore kalea, 23 • Tel. 28 18 38



eguneko



## 26an denok Mendizorrofzara

# XXI. mendeko akordioa

El acuerdo del siglo XXI • L'accord du XXI<sup>e</sup> siècle

## KARTAK

**Mus Txapelketa.** Bagare Euskal Tokiak Mus, Xake eta Partxis Txapelketak antolatu ditu. Kanporaketak abenduaren 22an eta 23an ospatuko dira. Finala, aldiz, hilaren 28an egingo da. Nora ez, baina saria bidai bat izango dela jakin izan dugu. Izenematea Bagaren bertan egin behar da.

## IKASTAROAK

**Tebista.** Urnietako CAE Sarobe ikastoki ospetsuak kamera ikastaroa antolatzen



du. Hilaren 14tik 16ra bitartean izango da eta 22.000 pezeta balio ditu. Irakaslea ez da edonolokoa: Juan Fernandez asesore tekniko eta platakoa (Los vigilantes de la playa telesailan, edota Michael Jackson eta Madonnaren klipetan egin izan du lan). Denbora gutxi daukazue!

[943 33 20 32 eta 33 17 96]

## GAZTAINADA

**Euskararen alde.** Ohikoa denez Gasteizko IKAK *Gaztaina* Jana antolatu du aurten ere. Aihotz plazako sarreran izango da, abenduaren 11an arratsaldeko zortziretan. Ekitaldiaren leloa *Euskararik gabeko ahotsa, gaztainarik gabeko morkotsa*.

## ANTZERKIA

**Nazioarteko jaialdia.** Izena adierazgarria da: Chicos Mambo Show. Kalatuniatik datozkigu eta zapping musiko-bisuala egingo dute. lan berrin da, ezberdina eta sailkazina. Zuzendaritza Oscar Molinarena da.

abenduak 15, asteartea. 20:30etan.

Principal antzokian

Besaulkia: 1.750

anfiteatroak: 1.500 eta 1.000

**Txotxongiloak.** Jaialdiaren barne baina haurrei zuzenduta, Gorakadak bere azken lana aurkezten du. Cita con la luna txotxongilo ikustaldia da, sei pertsonaien gaueko hausnarketa ibiltariak kondatzen duena. Txotxongiloek manipulatzaileak Alex Diaz eta Felix Moreno dira. Diseinua eta zuzendaritza, aldiz, Javi Tiradorena.

abenduak 12, larunbata. 18:00etan.

## EL PARRAL TABERNA

### 3. URTEURRENA

abenduak 15, asteartea.  
Ipuinkontalari kolonbiarra

abenduak 22, asteartea.  
Stay Telton (Bermeoko rock taldea)

abenduak 29, asteartea.  
Caruyo (flamenkoa)

**ekitaldi guztiak  
arratsaldeko  
20:30etan**



Principal Antzokian. Sarrera: 800.

16 urtetik beherakoentzat 400.

## erakusketak

**MONTEHERMOSO.** Ugariak dira Montehermoso Kulturuneak egunotan jasotzen dituen erakusketak: *Gasteiz historian*. Jatekoa, Giza Eskubideen Adierazpenaren 50. Urteurrenaren inguruko beste bat, Pedro Egiluzen margo lanak eta Antonio Ollokiren esmalteak. Denak urtarurilaren 10ra arte ikusgai.

**C. VITORIA H.** Lehen aldia da *Ciudad de Vitoria* hotelean antolatutako erakusketa baten berri ematen dugula. Blanca Garcia Etxebarriaren oleoak dira bertan ikusgai, *Fournier* aretoan, hilaren 15era bitartean.

**VITAL KUTXA.** Bi mostra ditu bere baitan Vital Kutxa Fundazioaren aretoak. 2002: *Europa poltsikoan* bata eta *Cosmosetik* ibilbide bat bestea. Abenduaren 18ra arte gazagarri.

Argazki - Estudio

## Erramun

Heraclio Fournier, 23 Askatasun kalea, 5  
Tnoa: 13 71 02 Tnoa: 26 19 91

HegoAmerikako jantzirik ederrenak

Pintore kalea • S. Frantzisko kantoieko ertzean Tfnoa: 25 03 52

SAN FRANCISCO KANTOIA 4 GASTEIZ  
TLF: 276833 04001

Asistenziak, Jantziak, BEGLINENDA, Pintxoak, Asistenziak, Kontzertuak, Antzerkiak, GAB...

bar • restaurante • albéniz

Errege Atea 9

GASTEIZ

Tu Invernadero zure lore sortak

ALDABE kalea 6, behea  
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

EUSKAL LABELA

## LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24  
Tfnoa: 25 56 90 GASTEIZ

255  
gen gasteiz



## DURANGORAKO

Mikel Garmendia / idazlea

urangorako aterako omen duk, Durangorako ari gaituk, Ea Durangorako argitaratzea lortzen dugun... Urteko mugarri, ezinbesteko erreferentzia bihurtua dugu Durango aspaldion. Euskal liburu eta diskoen urteko erreferentzia edo, nahiago bada, euskal kulturarena, euskaraz egiten ditugun produktuen.

Bada egunotan zenbaiten ahotan entzuten ari garen iritzi bat: ez ote garen euskal liburu gehiegi produzitzen ari. Edo, bestela esanda, kantitateari baino kalitateari begiratzeko ordua iritsi zaigula. Ez naiz zerbaki eta gonbaraziotan hasiko, ez baita maila hortakoa nire desadostasuna. Esan nahi dut planteamendua bera iruditzen zaidala okerra, zeren, garai batean ez bezala, geure irakurgaiak argitaratzen diren liburuen artetik aukeratutako batzuk izatea -ez denak, alegia- normaltasun seinale ez ezik, osasun onarena ere badela esango bainuke.

Eta kalitateaz, puska baterako behintzat nahikoa eztabaidatuta geundela zirudieneko honetan, hara non datorrigun, Durangoko azokaren bezperatan, E. Gil Bera jaun iluminatua bere "Ustezko euskal literatura" artikulu <<mamitsuarekin>>. Bereiz ditzadan ezer baino lehen artikulu horren forma eta edukia. Betidanik izan dut oso gustuko ekialdeko moldea, bai lehengoa (J. Etxepare, J.B. Elissanburu, F. Laphitz...), bai egungoa ere (Aingeru Epaltza, Itxaro Borda, Gi Bera bera...).

Horrek ez du esan nahi molde horretan egina izanak berezko balioa ematen dionik idatzi bati. Bestela esanda, ekialdeko moldeaz gozatzeko ez dut inolaz ere artikulu horretan azaltzen den iraineko pitokeria andana irakurri beharrik (hala nola, "Inork pretenituko balu euskaldunak ezagutzen beren literaturaren bidez -beren literatura daukaten herrien kasuan, behinik behin, beren historia



DURANGOKO AZOKA  
Nabakaberik

edota estadistikaren bidez ezagutu nahi izatea baino prententsio zentzuzkoagoa, beti ere- ikusiko luke euskaldunek kasik deus ere ez lezakeela erran salbu eta, itxuraz, idioten herri bat dela edota, karitatiboa bada, idazteko misioa beren arteko idiotenei fidatu zaiela; soilik arras karitatiboa bada, ondorioztatuko luke euskaldunek ez dutela literaturarik") Ez du merezi, benetan, holakoei sakon erantzuten hastea, tematzea. Gainera, ba al du ba sakontasunik artikulu horrek? Betetzen al du, inpresionatu nahiaz landa, beste xederik?

Nik bederen hori besterik ez diot ikusten: inpresionatu nahia. Eta zail da honezkero atzo gauean jaiok ez garenok, ekialdeko moldea gustuko izan ez ezezik benetan maite dugunok, Unamunoren lanak irakurriak ditugunok, M. Múgicaren libeloak piztutako eztabaida -beharrezkoagertutik jarraitu dugunok Gil Berarenak bezalako perlekin inpresionatzea.

Hire inpresioak bai, irakurri eta kontuan hartuko ditiaugu, baina ez saiatu, otoi!, berriro ere gu inpresionarazten. Bien bitartean utz iezaguk idazteko misioa fidatu diegun A. Lertxundi, K.Izagirre, Mariasun Landa eta abarren lanak, maisu-lanak, dastatzen eta gozatzen.

Osasuntsu ikusten dut euskal kultura, osasuntsu euskal liburugintza. Hutsunerik nabarmentzekotan, irakurtzen denari buruzko erreseina eta kritika eskasia aipatuko nuke. Hora hor, benetako kritiko izan nahi duenarentzat alor zabal bat irekia.

P.D.: Amaitzeko barru-barruko desio bat: izango al dugu, aurtengoan ez bada, heldu den urteko azokan, Durangoko seme kuttun hori,

idazle handi hori, han izanik hona dena, gure artean izateko aukera! Lortu behar dugu! Durangon ikusiko dugu elkar!



## GUREA

jatetxea

Konstituzio plaza, 10  
Telefona: 24 59 33



## ARANBIZKARRA

ZURE  
AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16 28 28 39  
01002 Gasteiz



# ZURE HARATEGIAK

*Jose Luis*  
**GARMENDIA**  
HARATEGIA-URDAITEGIA



Andaluzia kalea 13  
☎ 28 79 42  
GASTEIZ



**SANTI**  
HARATEGIA  
URDAITEGIA

Paraguay kalea 17  
☎ 27 07 90  
GASTEIZ

**XABIER**  
**AIZPEOLEA**  
HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 ETA 3  
☎ 13 24 48  
ABASTOS AZOKA 2 ETA 3  
☎ 26 78 97



**JOSEBA**  
HARATEGIA

Paraguay merkatua  
10 El Pilar auzoa  
☎ 25 66 89  
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi  
samurretan espezialduak**



# Floridako altxorra !

35



**adaka** **M**  
**madinabeitia**

**altzariak • apaindurak**  
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59  
GASTEIZ







## MANIPULAZIO BATEN HISTORIA. HISTORIA BATEN MANIPULAZIOA

Jon Maia / bertsolaria

on Flores, Unai Rodriguez, Irati Fernandez... milaka izen, milaka fruitu, milaka adibide. Non daude bi komunitateak? non daude maletak? Non dago zentzuna? Zenbat zentzunbako, hainbat zentzugabekeria. Etorkinen fenomeno aski ezaguna eta zabaldua da gurean, ez da atzo goizekoa. Hemen asko gara etorkinen seme-alabak, askok ditugu lagunak etorkinen artean ere, kuadrilakoak, etorkinekin ezkondu direnak, dabiltzanak eta ibiliko direnak. Hemen inork ez du etorkinen labelaren esklusiba edo patentea. Ez PSOE-k, ez PP-k, ez eta UA-k ere ez diezagutela diskurtso edo kontzeptu faltzurik saldu mesedez, ez diezagutela leziorik eman etorkinen beldurrez edo errealtitateaz. Ez dezatela kontzeptu faltzurik sortu, ez ditzatela manipulatu faxismoaren garaitik hona beti egin izan duten bezala. Ez dezatela suarekin jolastu. Espainolistek, erdal komunitatearen biktimismoa saldu eta, bide batez, sikosi faltzu bat sortu nahi duten garai honetan (garrantzi bereziko garai historiko honetan), benetan interesgarria litzateke etorkinen fenomenoaren historia piska bat egitea, egungo analisisa parametro errealetan eta fundamintuz egin nahi badugu, behintzat.

Jakina da, komunitate (nazio) baten nortasuna ahuldu eta nahastu asmoz, askotan izan dela erabilia emigrazioa. Jakina da Francok ere hala egin zuela. Eta jakina ez bada, suposatzea da Francok ez zuela arrazoi humanitarioengatik bultzatuko, planifikatuko, egituratuko eta ahalbideratuko Euskal Herrirako emigratzaile espainolen uholde hori. Pelikularen izenburua honako zerbait litzateke: Colonización y reconquista del Norte.

Jakina da, bestalde, Euskal Herrira etorritakoen artean, beharrak aginduta etorritakoak direla nagusi. Ez beren borondate ala kapritxoak etorritakoak. Ez gure herriarekiko maitasunez etorritakoak. Gehienek ez zekiten nora, ez eta zertara zetozen ere. Autobus eta trenetan sartu zituzten, guda galdu zutenak, pobrezian bizi zirenak...; bere herria, lagunak, sendia eta dena utzi eta hona etorri ziren. Milaka eta milaka.

Puntu honetan bereziki interesgarria da Bertold Brechtek esaten duena, etorkin kontzeptuari buruz. Berak dio kontzeptu hau oker erabilia dela; bere gogoaren aurka, behartuta edo bortxatuta bere herritik joan beharra izan duena, ez dela emigrantea edo errefuxiatua, desterratua edo kanporatua baizik. Euskal Herrira etorri ziren asko eta askori aplikatu

geniezazkieke kontzeptu zuzenago hauek.

Beti eta arlo guztietan izan dira erabiliak jendearen beharrak, hirugarren interes batzuetarako. Eta franquistek hala egin zuten, eta neofranquistak ere hala egiten ari dira.

Baina etorkin komunitatearekin buruturiko manipulazio krudela ez da beren etorrerarekin bukatzen, edo Frankoren garaiarekin. Gasteiz, Nerbioiaren ibar-ekerra, Irun, Orereta, eta beste hainbat desastre urbano eta soziologikoren errudunak ere beraiek dira.

Noiz sortu dira uholde horren integrazio sozial, linguistikoa ala kulturalerako bitartekoak, baliabideak ala kontzientzia-zioak? Noiz eraiki dira integraziozko biubiak? Nork gestionatu ditu etorkinen integrazio arazoak? Noiz eskaini zaie etorkinei herri hau errespetatu eta maitatzeko eredurik, zubirik?

Egia da norberaren esku dagoela hori, bai. Nire aitak ere beti esan izan dit, pertsona, langilea, jaten ematen dion lurrekoa dela, eta esker onekoa izan behar duela beronekin, eta defendatu eta maitatu egin behar duela. Baina <<masa>> bati buruz ari garenean, neurri handiko komunitate handi baten integrazioari buruz ari garenean, hori ahalbideratu, erraztu eta gestionatu egin behar da. Eta hori hemen ez du inork egin.

Baina paradogikoki, horretarako borondate zintzoena izan duena eta izaten ari dena, sektore abertzalea da, eta ausartuko nintzateke esatera, sektorerik erradikalena.

Hainbat eta hainbat dira ezker abertzalean bere euskalduntasun propioa topatu dutenak, langileak, gizon-emakumeak, haien seme-alabak..., beren integrazio soziokultural edo laboralerako aukera, hortxe topatu dutenak, talde espainolistek, desastre arkitektonikoetan pilatuta bultzatu eta elikatu nahi izan dituzten komunitate irla horien aurrez aurre.

Nor kezkatu zen ikastolak sortzeaz, umeez euskaraz ikasi ahal izan zezaten Barakaldon ala Gasteizen? (nork txikitu du sare hori?), nor kezkatu da helduen euskalduntzeaz? nortzuk plazaratu dute, aukera guztiak (espainolista ala independentista) defendatu ahal izango diren Lizarra-Garazirenaren moduko formula zabala eta oinarri ezin demokratikoagoa?

Egia da jarrera guztiak matizatu daitezkeela baina, ez dezatela ez historia eta ez komunitaterik manipulatu eta nahastu. Bestela, beraiek sorturiko arazo baten biktima izaten jarraituko dute, jarraituko du herri honek.

**IRUSTA**

**poteo eta pintxoak**

**ESPEZIALITATEA:**

**Patata tortila • Otartekoak**

**TABERNA**

Mateo Moraza kalea, 19

Tfnoa: 23 19 33

**GASTEIZ**

**TXUSTA**  
**TABERNA**

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea **GASTEIZ**

29

geu gasteiz



## ETA ORAIN?

Abel Enbeita / bertsolaria

paroa izan dugu benetan 1998-ko utearen ibilbidea. Oparoa onean eta oparoa txarrean.

Hasieratik, HB-ko mahaikideen epaiketa eta espetxeratzea eskaini zigun. Izenik gabeko fartsa hartako gora-beherak aipatzeak ezer gutxi irakatsi diezaguke, baina bi puntu, gerorako zer esana sor dezaketenak, azpimarratuta uti nahi nituzke: a) Alderdi abertzaleen erantzun eskasa, eta b) Nazionalismo espainolaren txalo zaparrada.

Ondoren, Garzón jauna asetzeke itxuraz, Egin egunkaria eta Egin irratia ren isilarazte basatiarekin aurkitu ginen. Honi ere atxiloketa mordoska erantsiz.

Hau guztia gutxi balitz, HB legez kanpo utz zezaketen zurrumurruak..., edo gehiago, airean zebiltzan.

Baina herri honek egoera latzetan ere zutik egoten bada-kiela erakutsiz, Mahai Nazional berria hautatzen du, Euskadi Información egunkaria kaleratu eta, azkenik, Euskal Herritarrok- E.H plataforma sortu.

Denbora gutxian gertatutako erantzunak badi-  
tugu ere, aspaldi-  
ko hausnarketen  
ondorio direla  
azpimarratu deza-  
kegu huts egiteko  
beldurrik gabe.  
Eta honen ondori-  
orik nabarmene-  
na "Lizarr-Gara-  
zi"ko akordioa  
dugu, non hiru  
alderdi abertzale-  
ak (PNV-EA-HB)

eta IU-EB lehendabizikoz elkarretaratzen diren, beste hain-  
bat herri-mugimendurekin batera, nazionalismo espainolean  
(PP-PSOE-UA) egon ezina sortaraziz.

Eta hauteskunde bezperetan Euskadi Ta Askatsuna era-  
kunde armatuak baldintzarik gabeko su-eten orokorra agint-  
zen digu.

Baina hau guztia historia da, garrantzitsua baina historia,  
iragana. Eta orain...? Benetako lana orain hasten da eta aurre-  
ra begira. Hauteskundeetako emaitzek abertzaleak gehien-  
goa direla adierazi digute, baina ausardiz jokatzeko ez bada,  
nagusitasun hori alferrikakoa gerta daiteke.

Herriak, orokorrean, alderdi eta erakunde politikoei eman-  
dako hitza betetzea eskatu behar die, bera baita dauden  
tokian jarri dituen. Ehuneko gehiengoak pausoak etenik  
gabe ematea eskatzen duela gogorarazi. Preso, errefuxiatu  
eta deportatuen desagerketa lortu; hau da, Amnistia. Lurral-  
detasunaren arazoari adarretatik heldu.

Baina hori ezin dugu "egingo duelakoan" utzi. Horrek  
guztiak herrian behar du bere ardatza, euskaria eta bultza.

Bidegurutze  
garrantzitsu, itxa-  
ropentsu eta aldi  
berean arriskut-  
suan gaude, "so"  
beharren "arre"  
behar dugun bide-  
gurutzean.

Batzek su-etena-  
rekin jakintsuen  
pausoa eman  
dute. Beste bat-  
zuek aipatu hit-  
zarmenarekin zer-  
bait ulertzen hasi  
diren seinalea  
agertu... Orain  
800.000 boto-emai-

leei horren guztiaren jarraipena egitea doakigu; jarraipena,  
exijentzia eta, batez ere, "lana". Ezin gara lotan gelditu.  
Animo!!!



**Ardatz** itzulpen eta  
euskara zerbitzuak

Arana kalea, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

**J A T E T X E A**

**XIXILU**

AMARIKA PLAZA 2  
23 00 68 GASTEIZ





## ONDOKOETAN BADAGO EUSKARAZ DAKIEN LANGILERIK

UDAL-BULEGOAK ZERBITZUA	HELBIDEA	TFNOA.	
<b>Udaletxea</b>	Argibideak eta Erregistroa Emakumeentzako Zerbitzua Erroldea Euskara Zerbitzua Funtzio Publikoa Gazteen Argibide Bulegoa Idazkaritza Prensa Bulegoa Zerbitzu Orokorrak	Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1	16 11 88 16 13 45 16 11 06 16 15 22 16 11 41 16 13 30 16 13 20 16 13 37 16 13 08
<b>Udala</b> (Dato kalea)	Borondatezko Diru Bilketa Zergen Gestioa	Eduardo Dato kalea, 11 Eduardo Dato kalea, 11	16 16 68 16 11 33
<b>Udala</b> (San Prudentzio kalea)	Gizartegiuntza Hiri Hobekuntza Ingurugiroa	San Prudentzio kalea, 30 San Prudentzio kalea, 30 San Prudentzio kalea, 30	16 13 44 16 13 01 16 11 20
<b>Udal artxiboa</b>	Argibideak	Unibertsitateko Ibilbidea, 1	16 14 99
<b>Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia</b>	Argibideak	Espainia plaza, 1	16 12 88
<b>Kultura</b>	Argibideak	Goiuri Jauregia ( <i>Villa Suso</i> )	16 12 70
<b>Hezkuntza</b>	Argibideak	Frai Zacarias kalea	16 12 16
<b>Ekonomi Sustapena</b>		Frai Zacarias kalea	16 12 11 16 13 48
<b>Gizarte Etxeak</b>	Ariznabarra Hegoalde Iparralde Judimendi Lakua Landatxo	Ariznabarra kalea, 19 Alberto Schommer kalea, z/g Zuberoa plaza, z/g Urriaren Hamabiaren kalea, z/g Etxanobetarren zidorra, z/g Santa Maria kalea, 4	13 36 91 16 18 80 16 17 60 16 17 40 17 17 81 16 16 82
<b>Europa gizarte-etxea</b>	Argibideak Biltzar eta Turismo Bulegoa Kontzientzia Eragozpena	Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85	16 12 31 16 12 61 16 36 91



CASA DE CULTURA



KULTURA ETXEA

# KULTURA

CASA DE  
ETXEA

hitza kultur etxean

**abenduak 17, osteguna**

**Munduaren neurria**

Anjel lertxundi eta Felipe Barandiaran

**BERTSO SAIOA**

**abenduak 10, osteguna**

**bertsolariak**

Igor Elortza

Jon Maia

Zigor Enbeita

Rikardo Glez. de Durana

**gai-jartzailea**

Asier Otamendi

**antolatzaileak**

Gasteizko Bertsolari Elkarte eta Arabako Foru

Aldundiko Kultura eta Euskara Saila

*ekitaldi guztiak arratsaldeko 8etan hasiko dira*